



Txostena 2013

Emakumearen Euskal Erakundea
2013ko Jardueren Memoria

sartu

1.

Hitzaurrea

2.

Herri
Administrazioen
Esparruan
Egindako Jarduerak

3.

Gizarte Osoa Xede
Duten Jarduerak



aurkibidea



irudiak



eranskina



BELDUR
BARIK
LEHIAKETA
2013

Aurkezpena

Emakundeko Zuzendaritza Kontseiluak 2014ko Ekainaren 4an egindako bileran onetsi zuen agiri hau. Erakundeei, antolakundeei eta herritar guztiei Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak 2013. urtean egindako jardueren berri ematea da helburua.

Lehenengoz, Emakunderen barneko antolakuntza eta egitekoa azaltzen ditu, eta horren arabera, atal handi bitan egituratzen da: Lehenengo atalak batik bat herri erakundeen esparruan egindako jardura biltzen du: politika publikoen diseinu, bultzada, koordinazio, aholkularitza eta jarraipeneko ekintzak eta emakumeek politika horietan duten parte-hartzea sustatzeko ekintzak ardatz hartzen ditu. Atal honetan, herri aginteekin egindako ekintzak azaltzen dira — bereziki, Administrazioaren hiru mailekin egindakoak—, eta Estatuko, Europako eta nazioarteko erakundeekiko harremanen esparruan egindakoak.

Bigarren atalean, gizarte osoarentzat bideratutako jardura azaltzen da, bai agente edo talde antolatuen bitartez egindakoa (adibidez, emakume-elkarteek edo enpresa eta erakunde pribatuek egindakoa), bai herritarrentzat egindakoa. Jardura honetan bi alderdi sartzen dira: alde batetik diskriminazio egoera zehatzei emandako erantzuna, eta bestetik gizarte-sentsibilizazioa.

Emakundek eskerrak eman nahi dizkie txosten honetan bildutako jardura guztiak profesionaltasunez egiten laguntza eman duten administrazioetako eta beste hainbat erakundetako pertsona guztiei; bereziki, berdintasuneko teknikariei. Halaber, Emakunderen Zuzendaritzak bere aintzatespena eta esker ona adierazi nahi dizkie Erakundeetan lan egiten duten pertsona guztiei, egunero gauzak ondo egiteko gaitasuna eta erakundearen xede eta helburuekiko konpromisoa erakusteagatik.

**Eskerrik asko
guztiori**

Aurkibidea

Aurkezpena

1. HITZAURREA

- 1.1. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea Egitekoa eta antolakuntza
- 1.2. Legegintzaldiaren lehenengo urtea: zuzendaritza berria, plan berria, urrats berriak
- 1.3. Emakume eta Gizonen Bertintasunerako VI. Plana
- 1.4. Eusko Legebiltzarrarekiko harremanak

2. HERRI ADMINISTRAZIOEN ESPARRUAN EGINDAKO JARDUERAK

- 2.1. Sustapena, aholkularitza eta erakundeen koordinazioa
 - 2.1.1. EAEko Administrazio Orokorra
 - 2.1.2. Foru- eta toki-administrazioa
 - 2.1.3. Beste instituzio eta erakunde batzuekiko koordinazio eta lankidetzak
- 2.2. Politika publikoen ebaluazioa
- 2.3. Zeharkako jardueraren esparru eta zerbitzuak
 - 2.3.1. Aholkularitza juridikoa
 - 2.3.2. Prestakuntza
 - 2.3.3. Azterlanak, ikasketak eta argitalpenak

3. GIZARTE OSOA XEDE DUTEN JARDUERAK

- 3.1. Emakumeen elkarteak eta berdintasunaren aldeko mugimenduak bultzatzea eta indartzea
- 3.2. Enpresentzako aholkularitza eta laguntza
 - 3.2.1. Bertintasun-planak. Aholkularitza
 - 3.2.2. Enpresa eta erakunde pribatuentzako diru-laguntzak
 - 3.2.3. Emakumeen eta Gizonen Bertintasunerako Lankidetzak Erakundeak
 - 3.2.4. Aholkularitza-entitateen homologazioa eta jarraipena
 - 3.2.5. Enpresei laguntzeko beste tresna batzuk
- 3.3. Herritarrak zuzenean artatzeko jarduerak
 - 3.3.1. Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako arreta
 - 3.3.2. Bertintasunaren eta sexuagatiko bereizkeriarik ezaren printzipioa defendatzea sektore pribatuan
- 3.4. Gizarte-sentsibilizazioa
 - 3.4.1. Nahiko programa
 - 3.4.2. Gizonduz ekimena
 - 3.4.3. Kanpainak
 - 3.4.4. Emakumeen eta Gizonen arteko Bertintasunerako Gunea
 - 3.4.5. Emakunde aldizkariaren argitalpena
 - 3.4.6. Hedabideetan agertzea
 - 3.4.7. Bertintasunaren Emakunde Saria
 - 3.4.8. Emakunde webgunea eta Gizarte-sareak

4. ERASKINAK

1. **Eranskina:** Udalerri, Kuadrilla eta Mankomunitate onuradunen zerrenda
2. **Eranskina:** Emakume eta gizonen berdintasunerako udal-planak eta mankomunitate-planak
3. **Eranskina:** Kontsultak eta eskaerak. Dokumentazio-Zentroa
4. **Eranskina:** Diru-laguntza jaso duten emakumeen elkarteak
5. **Eranskina:** Diru-laguntza jasotzen duten bestelako Elkarteak eta Antolakundeak
6. **Eranskina:** Kexak eta salaketak

5. CLIP ART IDURDIAK



1. HITZAURREA

1.1. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea Egitekoa eta antolakuntza

Otsailaren 5eko 2/1988 Legeak Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortu zuen, izaera administratiboa duen erakunde autonomiadun gisa, berezko nortasun juridikoarekin eta Eusko Jaurlaritzaren Lehendakartzara atxikita. Emakunderen egitekoa erakunde publiko eta pribatuen berdintasun politikak diseinatu, bultzatu, koordinatu eta ebaluatzea da, politika horietarako aholkua ematea, eta gizartea sentsibilizatzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko -benetakoa eta eraginkorra-, Euskal Autonomia Erkidegoko politikagintzaren, ekonomiaren, kurgintzaren eta gizartearen esparru guztietan.

Erakundearen jardura eremu handi biak hauek dira: batetik, herri administrazioekin lan egitea, administrazio horietan berdintasunaren aldeko egiturak sendotuz eta politika publikoetan genero ikuspegia sartzeko neurriak abian jar daitezela sustatuz, eta, bestetik, gizartearen orokorrean lan egitea, berdintasun politiketan oinarrituta balio-aldaketak, emakumeen ahalduntzea, antolaketa sozial erantzunkidea eta emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea bultzatzeko.

Zuzendaritza organoak:

Emakunderen jardura gidatzen duten organoak hauek dira:

- Zuzendaritza Kontseilua (urriaren 31ko 214/2006 dekretuak arautua). Kide hauek ditu: presidentea, Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria; presidenteordea, Emakundeko zuzendaria, eta Eusko Jaurlaritzako sail hauetako kideak: hezkuntza, lana, osasuna, industria, kultura eta gizarte gaiak; foru eta toki administrazioetako ordezkariak; Eusko Legebiltzarren ordezkariak eta Emakunderen Aholku Batzordeko ordezkaria. Zuzendaritza kontseilua 2013an berriro zen, X. Legegintzaldiaren hasieran, 2013ko maiatzaren 27an egindako bilkuran.
- Zuzendaria (bere eginkizunak 214/2006 Dekretuan daude araututa). X. Legegintzaldiaren hasieran, Izaskun Landaida Larizgoitia Emakundeko zuzendari izendatu zen (137/2013 Dekretua, urtarrilaren 29koa).



Zuzendaritza
Kontseiluaren
osaketa



Kudeaketa organoak

Emakundek kudeaketa organo hauek dauzka:

- Idazkaritza nagusi bat. X. Legegintzaldiaren hasieran, Ana Alberdi Zubia Emakundeko idazkari nagusi izendatu zen (159/2013 Dekretua, otsailaren 12koa).
- Sei arlo funtzional: Emakunderen barne antolaketa kudeaketa-arlo funtzional hauetan ezartzen da:
 - Administrazioa.
 - Aholkularitza Juridikoa eta Informazioa.
 - Lankidetzak.
 - Azterketak, dokumentazioa eta plangintza.
 - Programak eta prestakuntza.
 - Emakumeen aurkako indarkeria.

Koordinazio organoak

Emakundek koordinazio-organok dauzka bere egitura organikoaren barruan:

- Emakumeen eta Gizonen Bertintasunerako Erakunde arteko Batzordea.
- Emakumeen eta Gizonen Bertintasunerako Sailarteko Batzordea.
- Emakunderen Aholku Batzordea- Emakume-elkarteen partaidetza organoa.
- Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundearen arteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordea.
- Begira, Publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko aholku batzordea.

1.2. Legegintzaldiaren lehenengo urtea: zuzendaritza berria, plan berria, urrats berriak

2013. urtean Emakunderentzat legegintzaldi berria hasi da. Horren ondorioz zuzendaritza berria izendatu dute: Izaskun Landaia Larizgoitia zuzendari, eta Ana Alberdi Zubia idazkari nagusi.

X. Legegintzaldia hasteaz batera, Emakunderen lehenengo arduretako bat EAEko emakumeen eta gizonen bertintasunerako VI. Plana egitea izan da. Hala, erantzuna eman zaio Emakumeen eta Gizonen



Izaskun Landaia
Zuzendaria



Ana Alberdi
Idazkari Nagusia

Berdintasunerako 4/2005 Legearen 15.1. artikulua ezarritako lege izaerako mandatuari. Agiri honetan esku-hartzeko ildoak eta jarraibideak zehazten dira, Euskadiko botere publikoek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde egiten dituzten jardueretarako orientabide gisa.

VI. Plana egiteaz gain, desagertutako Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren zereginak eta zerbitzuak X. Legegintzaldiko Gobernu egituraren berriro txertatzeko prozesua izan da 2013. urtean Emakunderen jardura markatu duten lanetako bat. Txosten honetan geroago azalduko den prozesu horri esker, Emakunde sortu zenetik EAEn berdintasunaren arloan sustatu den esku-hartze eredu indartu ahal izan da. Berdintasunerako politikak koordinatzeko eta bultzatzeko duen zeregina indartu egin da esparru guztietan —esaterako, prebentzioaren eta gizarte sensibilizazioaren esparruetan—, eta herritarrak artatzeko zereginak arlo bakoitzean eskumena duten sailetara bideratu dira.

2013. urtean, halaber, Erakundean gogoeta egiteko eta hobekuntzarako barne prozesuak hasi dira. Prozesu horiek hasteko arrazoiak hauek izan dira: legegintzaldi berria zuzendaritza talde berriarekin eta beste esparru batzuetatik datozen langileekin hasteak ematen duen aukera; krisi ekonomikoaren ondorioz berdintasun-politiken beharizana auzitan jartzen duen korronteari aurre egin beharra; eta legegintzaldi honetan erakundearen helburuak batera definitzeko asmoa. Prozesu horretan, Emakundek bere egitekoa definitu du, arlo bakoitzeko arduradunen autonomia eta erabaki-ahalmena indartzen dituen zuzendaritza-taldea eratu du eta langile guztiak erakundearen lehentasun estrategikoak betetzearen alde jartzeko prozesuari ekin dio.

1.3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana egitea, beraz, 2013an Emakundek izan dituen lehenengo eginkizunetako bat izan da. Izan ere, EAeko berdintasun-politiken sustapenez, aholkularitza, plangintza eta ebaluazio arduratzen den erakundea den aldetik, Emakunderi dagokio EAeko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana egitea.



VI. Planaren
Aurkezpeneko
Agerraldia

VI. Planaren
Aurkezpeneko
Agerraldia



Hala, 2013aren hasieran EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana egiteko prozesua hasi zen. Plan horrek emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/15.1 Legeak ezarritako lege-agindu bati erantzuten dio, eta bitzita politiko, ekonomiko, kultural eta sozialeko esparru guztietan emakumeen eta gizonen benetako berdintasun efektiboa lortzea du xede.

Berdintasunerako VI. planaren helburua, funtsean, esku hartzeko zenbait ildo eta jarraibide zehaztea da, euskal herri-agintek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan izango duten jarduera zuzentzeko. VI. planean azaltzen da zer lan egin behar den emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko. Euskal herri-aginte eta herri-administrazio guztiek aplikatu beharko dute; hala, planean zehaztutako esku-hartzeko ildoekin bat, berdintasun arloko jarduera-plan eta -programak osatu beharko dituzte.

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. plana Eusko Jaurlaritzak X. legegintzaldirako onartutako Plan Estrategikoen Programaren barruan dago. Horiek oinarri hartuta egituratu eta planifikatuko dira Eusko Jaurlaritzak Gobernu Programan aurreikusita dituen politika publiko gehienak.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako VI. plana diseinatu baino lehen, plan ugari egin dira EAEn emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren inguruan:

EAEko berdintasun-planak	Indarraldia
EAEko Emakumeentzako Ekintza Positiboko I. Plana	1991-1994
EAEko Emakumeentzako Ekintza Positiboko II. Plana	1995-1999
EAEko Emakumeentzako Ekintza Positiboko III. Plana.	1999-2004
EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako IV. Plana	2006-2009
EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako V. Plana.	2010-2013

VI. planaren helburuak zehazteko oinarri izan dira berdintasunerako plan horiek guztiak abian jartzeak eta ebaluatzeak erakutsi diguna, Euskadiko emakumeen eta gizonen errealitatearen analisia, eta, batez ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak ezarritako eskubide eta aginduak. Planaren helburua da berdintasunaren arloan urte hauetan guztietan egin den esku-hartze publikoan egindako aldaketak irmotzea eta lortutako aurrerapenak finkatzea.

Era berean, planak arlo ekonomikoaren, politikoaren, sozialaren eta kulturalaren alderdi guztietan balio-aldaketaren lantzearen aldeko apustua egiten du, gizarteak berdintasunerantz egin dezan. Pertsonen usteetan eta gizartearen maila sinbolikoan eragina izatea. Lan zaila den arren, ezinbestekoa da aldaketak eta transformazioak eragiteko.

VI. plana gida-plan bat izateko taxutu da, eta hor jasotzen dira berdintasuna lortzeko erronkak. Helburu horrekin, VI. planean datozen urteetan lehentasunez zer helburu estrategiko eta operatibotan esku hartu nahi den adierazten da, baina ez da definitu esku-hartzean zer estrategia baliatu behar den eta zer jarduera zehatz egin behar den helburuok lortzeko; izan ere, onuragarria litzateke erakunde bakoitzak bere jarduteko modua diseinatzea, bere barneko nahiz kanpoko errealitatearekin bat.

Hori horrela izanik, herri-erakunde eta -administrazioek autonomia handiagoa dute emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko beren planak eta programak definitzeko, bai eta malgutasun maila handiagoa ere, esku hartzeko metodologiak hautatzeko garaian. Nolanahi ere, eta aldi berean, denek norabide berean eta helburu berak lortzeko lan egiten dutela bermatzen da.

VI. berdintasun-planean jasotako helburuek administrazioaren antolaketa eta barne-funtzionamendua aldatzeko erronkak eta gizarte aldatzeko erronkak (balio-aldaketak, emakumeen ahalduntzea, gizarte antolaketa erantzunkidea eta emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea bultzatzeko) biltzen dituzte. Helburu-talde horiek osatzen dute, hurrenez hurren, VI. plana egituratzen duten bi blokeak. hona hemen bi bloke horiek:

Berdintasunaren aldeko gobernantza hobetzeko neurriak:

Guztira 13 neurri dira, emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legeak berdintasun-printzipioa euskal herri-aginteen antolakuntzan eta funtzionamenduan txertatzeko ezartzen dituen aginduak biltzen eta hedatzen dituztenak.

Berdintasunaren alorrean esku-hartzeko ardatzak: I. planak proposatzen dituen erronkak 3 ardatzen eta 8 programaren inguruan antolatu dira. Berdintasunaren alorreko herri-aginteen jarduera honela antolatzen dute:

- I. ardatzak balio-aldaketa eta emakumeen ahalduntze pertsonala, kolektiboa eta soziala bultzatzen ditu;
- II. ardatzak antolaketa sozial erantzunkidea garatzea du helburu;
- eta III. ardatzak emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazi nahi du.

VI. Plana egiteko prozesuan hainbat fase egon dira. Fase horietan, eragile batzuen zein besteen partaidetza eta laguntza funtsezkoak izan dira. Lehenengo fasean berdintasun-politiken esparruan dauden koordinazio-batzordeetako teknikarien eta emakume elkarten partaidetza sustatu zen, horiei lanari esker eman baitio VI. Planak garrantzi handiagoa balio aldatetari. Batzorde eta elkarte horien proposamena bat dator Emakunderen planteamendurekin, hots, balio-aldaketa indartzearekin eta genero-rolak eta estereotipoak ezabatzearekin. Proposamen horren bidetik, planaren hasiera izango den programa bereizi bat diseinatu da, bizitzako arlo guztietan balioak aldatzeko lan egiteari buruzko programa, hain zuzen.

Bigarren fasean, Sailarteko Batzordearen eta Zuzendaritza Kontseiluaren ekarpenak aurkeztu eta bildu ziren. Hirugarren fasean, irailtik urrira bitartean, jendaurrean aurkeztu zen, eta horren ondorioz hainbat talderen sozializazio eta partaidetza prozesu batzuk abiatu ziren.

Jasotako eta egindako ekarpenak balioztatu ondoren, planaren behin betiko testua azaroaren 29an onartu zuen Emakunderen Zuzendaritza Kontseiluak, eta abenduaren 30ean, Jaurlaritzaren Kontseiluak. Azkenik, EAEko emakumeen eta gizonen VI. berdintasun-plana Eusko Legebiltzarrari bidali zitzaion ezagut zezan.

1.4. Eusko Legebiltzarrarekiko harremana

Emakunderen eta Eusko Legebiltzarraren arteko harremana etengabea eta joria da. 2013an, Emakundeko zuzendariak eta idazkari nagusiak, legebiltzarreko euskal talde batzuetan eta besteen galderei idatziz erantzuteaz gain, hainbat aldiz agertu dira legebiltzarraren aurrean, eta beste hainbat jarduera ere egin dituzte:



Eusko Legebiltzarra

Emakunde.
Eusko
Legebiltzarrarekin
harremana



- Jardueren artean, otsailaren 25ean, Emakundeko Zuzendaritzak Emakumeen Nazioarteko Egunari (martxoaren 8ari) buruzko erakunde adierazpena entregatu zioten Legebiltzarreko presidente Bakartxo Tejeriari, ganberak onetsi zezan.
- Apirilaren 10ean, Emakundeko zuzendaria Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen, berdintasunaren eta herritarren partaidetzaren Batzordearen aurrean agertu zen, erakundearen jarduerak legegintzaldian izango dituen ildo orokorren berri emateko.
- Maiatzaren 6an, Giza Eskubideen, berdintasunaren eta herritarren partaidetzaren Batzordearen aurrean agertu zen, Emakundek Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren zereginak nola bereganatuko dituen azaltzeko, eta genero indarkeriaren biktimei diren emakumeak babesteko proposamenaren berri emateko.
- Azaroaren 13an, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen, berdintasunaren eta herritarren partaidetzaren Batzordearen aurrean agertu zen EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako V. Plana garatzeko eta ezartzeko, 2010-2011. urteetan botere publikoek egindakoari jarraipena egiteko txostena aurkeztu zuen, eta Euskadiko Emakumeen eta Gizonen Egoerari buruzko zifrak – 2012 txostena ere bai. Agerraldi horretan hainbat galderari erantzun zien, azaltzeko zein den Emakundek izan duen inplikazioa Jaurlaritzak hezkuntza-sisteman genero-indarkeriari aurre egiteko eta hezkidetzak lantzeko egin duen plan estrategikoan; halaber, berdintasunerako X. Gunean zaintza partekatuari buruz egindako adierazpenak azaltzeko egindako eskariari ere erantzun zion.
- Abenduaren 18an, Erakunde, Segurtasun eta Justizia Batzordearen aurrean agertu zen, Emakundek zaintza partekatuari buruz duen jarrera azaltzeko.

2. HERRI ADMINISTRAZIOEN ESPARRUAN EGINDAKO JARDUERAK

Herri administrazioekin egindako lana Emakunderen jarduera-esparru handietako bat da. Esparru horretan politika publikoen bultzada, koordinazio eta jarraipen ekintzak egiten ditu, eta gizarteak politika horietan parte har dezala sustatzen du. Arlo horretan botere publikoekin egindako jarduerak aipatzen dira —bereziki Administrazioaren hiru mailekin egindakoak—, eta estatuko, Europako eta nazioarteko erakundeekiko harremanen esparruan egindakoak, eta bereizi egiten ditu egitura organiko batzuen eta besteen esparruan dauden bultzada eta koordinazio ekintzak, alde batetik; alde biko harremanen beste testuinguru batzuetan egiten direnak, bestetik; eta beste batzuk: prestakuntza eta aholkularitza ematea, laguntza agiriak egitea, txostenak prestatzea, etab.

2.1. Sustapena, aholkularitza eta erakundeen koordinazioa

2.1.1. EAEko Administrazio Orokorra

Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Sailarteko Batzardea

Emakundek Sailarteko Batzardearen bidez betetzen du, nagusiki, Eusko Jaurlaritzaren barnean berdintasun-politikak sustatzeko eta aholkatzeko eginkizuna. Batzarde hori, 4/2005 Legean jaso eta gaur egun abenduaren 26ko 261/2006 Dekretuaren bidez arautua, Eusko Jaurlaritzak emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean gauzaten dituen jarduerak koordinatzeko organoa da. Emakunderi atxikita dago; Batzardeko presidentea Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria da, eta batzardeko presidenteordea Emakundeko zuzendaria. Erakundeak idazkari nagusiak Idazkaritza zereginak egiten ditu, eta batzardekide gisa Batzardeburuaren Idazkari Nagusia eta Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzeko sailburuorde bat aritzen dira.



Berdintasarea. Eudel



Sailarteko Batzardea



Sailarteko batzordeak 2013ko ekainean ohiko bilkura egin zuen, eta gai hauek aztertu zituen:

1. X. legegintzaldiaren osoko bilkura eratzea.
2. Jaurlearitzako sail bakoitzak 2013ko programa-dokumentua aurkeztea eta entregatzea.
3. Emakunderen 2013ko ekintza plana aurkeztea.
4. Legegintzaldi honetan Sailarteko Talde Teknikoa osatuko duten pertsonak izendatzea.
5. Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako VI. Planaren zirriborroaren oinarritzko ildoak aurkeztea eta ekarpenetarako epe bat zehaztea.
6. Proposamena egitea, Emakundek generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioen esparruan egiten dituen txostenak Jaurlearitzako langileen eskura jartzeari buruz.

Batzorde honetako talde teknikoaren helburua, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordea arautzen duen dekretuan xedatzen denarekin bat¹, Batzordeko kideei laguntza eta aholkularitza teknikoa eskaintzea da, bere esku uzten diren gaiak aztertuz, txostenak osatuz eta proposamenak eginez.

Emakundek sustatzen eta koordinatzen du Taldea eta, sailarteko bileren bidez nahiz alde biko bileren bidez, sail bakoitzari dagozkion sektoreko politikak aztertzen laguntzen du; horretarako, berdintasuna bultzatzen duten helburuak identifikatzen ditu, jarduera-estrategiak zehazten ditu, eta sail bakoitzaren eta Jaurlearitza osoaren berdintasun-politiken plangintzarako, garapenerako eta jarraipenerako tresnak proposatzen ditu. Ildo horretatik, lankidetzeta eta aholkularitza eskaini zaizkie 2013. urtean Jaurlearitzako sailei, beren 2013ko programa-dokumentua egiteko, otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 15.2. artikuluan xedatuari jarraituz.

Aholkularitza eta informazioko lanean, 250 kontsultari erantzun zaie, Jaurlearitzako sailek, erakunde autonomiadunek eta ente publikoek egindakoak. Halaber, proiektu zehatzak gauzatzeko lankidetzeta eman da: batez ere, materialak berrikusteko eta prestatzeko, edo genero-ikuspegia barne hartzen duten sektore-ekintza berritzaileak abian jartzeko. Gainera, berdintasunerako politiken plangintza, kudeaketa eta ebaluazioa hobetzeko proposamenak egin dira.

¹ Ikusi Emakunderi atxikitako batzordeak, 2. atalean.

Hauek dira Emakundek Sailarteko Talde Teknikoaren alorrean 2013. urtean egindako ekintza zehatzak:

- Bilerak antolatu, prestatu eta koordinatu ditu, eta horien jarraipena egin du.
- Sailarteko Talde Teknikoko kideei aholkularitza eman die, urteko programa-dokumentuak egiteko.
- Berdintasunerako egiturek Eusko Jaurlaritza berria taxutzeko prozesuan barruan duten egoerari buruzko azterketan parte hartzea.
- Eusko Jaurlaritzako sailen berdintasun politiketan organismo autonomoei, erakunde publikoei eta sozietate publikoei eman behar zaien tratamendua errazago aztertzeko agiri bat aurkeztea.
- Berdingune webgunearen edukiak zabaltzeko proposamena aurkeztea.
- Sailek Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako VI. Plana egiteko prozesuan duten partaidetza bideratzea eta horri buruzko aholkua ematea.

Alde biko lana sailekin

Sailarteko Talde Teknikoarekin egiten den lanaz gain, bi aldeko lana egiten du Emakundek sail jakin batzuekin, sail horiek proiektu eta zeregin zehatzen harian egiten dituzten eskakizunei erantzuteko, batik bat. 2013. urtean, jarduera hauek nabarmendu behar dira:

- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarekin, Hezkuntza-sisteman hezkidetzeta eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida-Plana lantzeko eta abian jartzeko. Lankidetzeta horren bidetik honako hau guztia egin da: Emakundeko teknikariek planaren oinarriak ezarri zituen Hezkidetzeta Batzordean parte hartu zuten; Emakundeko zuzendaritzak planaren zirriborroa aurkezteko prentsaurrekoan parte hartu zuen, bai eta behin betiko plana aurkezteko jardunaldian ere; Emakundek Jarraipen Batzordean eta Batzorde Teknikoan parte hartzeko konpromisoa hartu zuen; eta Nahiko eta Beldur Barik programak ezartzeko materialak, trebakuntza, aholkua eta laguntza interesatutako zentron eskura jarri ziren, doan. Gainera, sailarekin lankidetzan aritu ziren Beldur Barik kanpaina hezkuntzaren, kulturaren eta gazteen eremuan hedatzeko estrategia eta jarduketak definitzen. Halaber, kanpaina hori EITBko Zuzendaritzari aurkeztu zitzaion, 2013an erakunde horren lankidetzeta zehazteko.
- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak bultzatutako lantaldearekin, genero ikuspegia goi mailako hainbat titulazio teknikoren curriculum diseinuan integratzeko. Titulazio horiek Arte Plastikoak eta Diseinua Publizitate-grafikan, Arte Plastikoak eta Diseinua Argazkigintzan, Arte Plastikoak eta Diseinua Animazioan eta Arte Plastikoak eta Diseinua Ilustrazioan izan ziren, Komunikazio Grafikoa eta Ikus-entzunezko Komunikazioa lanbide-arlo artistikokoak. Gainera, irakasleei Lan-Prestakuntza eta -Orientabideko zeharkako moduluak generoaren ikuspegitik emateko erraztasunak emango dizkien gidaliburu bat egiten hasi da. Gidaliburuak Dekretuetan sartzeko proposatutako helburuak, edukiak eta ebaluazio irizpideak biltzen ditu, bai eta curriculum generoaren ikuspegitik osorik lantzeko jarraibideak txertatzeko ere.
- Herri Administrazio eta Justizia Sailarekin, Eusko Jaurlaritzaren kudeaketan kalitatea hobetzeko Aurrerabide proiektua ezartzeari dagokionez.
- Lanbiderekin eta Ekonomia Zuzendaritzarekin, egitura-funtsen esparruan.
- Herri Administrazio eta Justizia Saileko berdintasunerako unitate administratiboarekin, berdintasunaren aldeko erakunde publikoen sarea abian jartzeko, lankidetzarako on line plataforma moduan, Berrikuntza Publikoaren Planaren (BPP) babespean eta elkarri adierazteko JAKINGUNE gunearen barruan.



- Landako Emakumeen Batzordean parte hartzea.
- Herritar etorkinen integrazioa eta partaidetza sozialerako foroa parte hartzea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Partaidetza Sozialerako Kontseiluan parte hartu du, Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren esparruan.
- KZguneak-ekin lankidetzak, emakume elkarteentzako IKTen arloko «Emakundeak Sarean» prestakuntza programan genero ikuspegia bultzatu eta txertatzeko.

Plan eta programa sektorialeko buruzko txostenak

Politika orokorretan genero ikuspegia txertatzen laguntzeko beste mekanismo bat Eusko Jaurlaritzako Sailek bultzatutako eta garatutako plan sektorial batzuei eta besteei dagokienez aholkua ematea eta ekarpenak, txostenak edo lan-bilerak egitea da. 2013an plan hauetan lagundu da, haiei buruzko txostenak egiteaz gain:

- 2011-2013ko Immigrazio Plana.
- III. Gazte Plana 2020 eta 2014ko urteko plana.
- Osasun Plana 2013-2020.
- Eusko Jaurlaritzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana.
- Gizarteratzeko III. Euskal Plana (2011- 2015). Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarteratze Aktiboko Euskal Plana.

Generoaren eraginaren aldeko aurretiko ebaluazioa

Genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioa politika publikoetan genero ikuspegia sartzeko oinarritzko neurrietako bat da, eta hala dago ezarrita Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean. Lege horren Zortzigarren Xedapen Gehigarrian betetze aldera, Jaurlaritzaren Kontseiluak onesten ditu ebaluazio hori egiteko gidalerroak. Gaur egun, 2012ko abuztuan onetsitako gidalerroak daude indarrean.

Indarrean dauden gidalerroak errazago aplikatu ahal izateko, Emakundek material lagungarriak egiten ditu Eusko Jaurlaritzako berdintasun-unitateekin lankidetzan. Material horien ardatza emakumeek eta gizonek hainbat arlotan dauzkaten egoera diferenteak testuinguruan sartzeko eta aztertzea izan da. Halaber, material horiek generoaren araberako eraginaren txostenak egiteko gidaliburua osatzen dute.

Generoaren araberako eraginaren aurreko ebaluazioa politika publikoetan genero-ikuspegia txertatzeko oinarritzko neurria da.



Material horietako batzuk Emakunderen webgunean eta intranetean kontsultatu daitezke, eta beste batzuk 2014an kontsultatu ahal izango dira. 2013an egindako material sektorialak arlo hauei buruzkoak dira:

- Komunikazioa
- Ekonomia
- Hezkuntza
- Enplegua
- ekintzailera
- Ikerketa, Garapena eta Berrikuntza (I+G+b)
- Industria
- Ingurumena
- Garraioa eta mugikortasuna
- Osasuna
- Informazio-gizartea

Bestalde, Emakundek 2007an sailek generoaren araberako eraginaren txostenak ongi egin zituztela egiaztatzeko eta hobekuntzak proposatzeko hasi zuen lanari dagokionez, 84 espediente jaso eta aztertu ditu eta administrazio-arauen eta -egintzen 67 proiekturi buruzko txostenak egin ditu Emakundek 2013an. Hurrengo taulan ikus daitezke proiektu horien xehetasunak:

2007-2013 DATUAK

	LEGEAK	DEKRETUAK	AGINDUAK	EBAZPENAK	GUZTIRA
2007	6	25	12	1	44
2008	19	46	51	2	118
2009	3	49	35	4	91
2010	9	36	29	1	75
2011	18	54	14	1	87
2012	11	67	15	3	96
2013	4	43	9	0	56
GUZTIRA	70	320	165	12	567

Halaber, aplikazio informatiko berria garatu eta ezarri dugu, eragin-txostenak erregistratzeaz gain, emakumeen eta gizonen berdintasunari laguntzen dioten neurriak -generoaren araberako eragina ebaluatzeko prozesuaren ondorioz araudian sartu direnak- ebaluatu ahal izateko.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak generoaren araberako eraginaren ebaluazioen arloan egindako lana jardunbide on gisa aurkeztu da Generoaren mainstreamingaren eraginkortasunari buruzko Biltzarrean. Biltzar hori Genero Berdintasunaren Europako Institutuak antolatu zuen Lituaniar, herri hura Europar Batasuneko buru izango zela-eta.

2.1.2. Foru- eta toki-administrazioa

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordea

Erakunde arteko Batzordea arautzen duen Dekretuan xedatuta dagoenaren arabera², dagokion Talde Teknikoak, aztertuz, txostenak osatuz eta proposamenak eginez, Batzordeko kideei laguntza eta aholkularitza teknikoak ematen dizkie, Autonomia Erkidegoko, Foru Aldundietako eta Udalerrietako Administrazioek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan garatzen dituzten politika eta programak koordinatzeko zereginen.

Erakunde arteko Batzorde horren esparruan, Emakundek Lantalde Tekniko hauek bultzatu eta koordinatu ditu, 2011n sortu zirenetik:

- **Sektore publikoaren hitzarmen, diru-laguntza eta kontratuetan berdintasun-neurriak aplikatzeko irizpideak eta bitartekoak.** Talde honek proposatuta, Emakundek sentsibilizazio-jardunaldi bat antolatu du. Jardunaldi horretan, sortu diren gidaliburua eta webgune espezifikoa aurkeztu dira, eta EAEko administrazio publikoetako langileentzat abenduaren amaierara arte eman den online aholkularitza-zerbitzu espezializatua ere bai. Halaber, diru-laguntza eta kontratuetan berdintasun-neurriak bultzatzeko gidaliburua egiteari ekin zaio. Enpresa eta erakunde pribatuei zuzendutako gidaliburu horrek orain arte gehienbat sektore publikoa gogoan hartuta egun den lana osatuko du.
- **Generoaren araberako eraginaren ebaluazioak egin eta aplikatzeko irizpideak.** EAEko hainbat Udalen, foru aldundien, Eudelen eta Emakunderen artean baterako azterketa eta gogoeta prozesua abian jarri da. Horri esker, gidalerro eta/edo gomendio batzuk adostu ahal izango dira EAEko udaletan generoaren araberako eraginari buruzko txostenak egiteko.
- **Hezkuntzaren eremuan, berdintasunaren alde elkarlanean aritzeko neurriak.** Talde horretan gogoeta prozesua ireki da, taldeak aurrera jarraitzea komenigarria den ala ez, kontuan hartuta Hezkuntza-sisteman hezkidetzeta eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida-Plana onetsi dela eta plan horren jarraipena egiteko koordinazio talde politiko bat eta talde tekniko bat sortu direla.

² Ikusi Emakunderi atxikitako batzordeak, 2. atalean.

Talde Teknikoa
Erakundeen Arteko Batzordekideei laguntza eta aholkularitza ematen die, emakumeen eta gizonen berdintasuneko kontuetan Autonomia, Foru eta Tokiko Administrazioak garatzen dituen politikak eta programak koordinatzeko eginkizunari dagokionez.

Bestalde, informazioa eta aholkularitza eman zaie EAEko udalei eta foru-aldundiei, eta, guztira, 331 kontsultari erantzun zaie.

Erakunde arteko Batzordean egindako lanaz gain, udalekin lan egiteko eta haiei laguntzeko beste jardun-ildo batzuk ditu Emakundek:

Berdinsarea-Berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako euskal udalerrien sarea

Sare hori Emakunderen bultzadarekin sortu zen, eta 2005ean EUDEL-Euskadiko Udalen Elkartearekin sinatutako lankidetzaren baten bidez jarri zen martxan. Hitzarmen horren bidez, Emakundek hitzeman zuen sarea dinamizatuko zuen berdintasun-eragile bat kontratatuzko finantzaketan parte hartuko zuela eta EUDELeke hitzeman zuen sare hori sortu eta kudeatuko zuela, bai eta hura garatzeko beharrezko jarduerak gauzatuko zituela ere.

Sareak organo hauen bidez funtzionatzen du:

- Jarraipen Batzordea. EUDELeke eta Emakundeko ordezkariak osatzen dute, eta honako ardura hauek ditu: hitzarmenaren jarraipena egitea, Sarearen jardura gidatzen duten gidalerroak finkatzea eta haren lehentasunak azaltzea lan-plana egitean, Jaurilaritzaren eta gainerako erakundeen politikekiko koherentea izan dadin eta koordinatuta egon dadin.
- Osoko Bilkura. Sarearen gobernu-organoa da, eta sarea osatzen duten udal guztietako tokiko hautetsiek osatzen dute.
- Batzar Teknikoa. Udalerri bakoitzak izendatutako berdintasun-teknikariak, Sarearen idazkaritza teknikoaz arduratzen den teknikariak eta Emakundeko teknikari batek osatzen dute.

Hauek izan dira, zehazki, 2013an egindako ekintzak:

- Berdinsarea garatu eta finantzatzeko Eudelekin sinatutako hitzarmena berri du.
- Udaletan berdintasun-politikak sustatzeko ardura duten politikariak eta teknikariak lan egin du.
- Jarraipen Batzordearen bileretan parte hartu du, eta hartu diren erabakien jarraipena egin du.
- Berdinsarearen batzar teknikoetan parte hartu du, eta hartutako erabakien jarraipena egin du.
- Udalerriek Berdinsarean sartzeko egindako eskariak aztertu eta ebaluatu ditu. Sondika eta Zamudio Berdintasun sarean sartzeari onartu da. Sareko udalerrien kopurua 59ra iritsi da horrela.
- Emakume eta Gizonen berdintasunaren arloan ordenantzak egiteko Batzordean parte hartu du. Batzorde hori Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Udal Ordenantza bat egiteko prozesuan interesa duten udalerriek osatzen dute.
- Emakume politikarientzako Virginia Wolf Basqueskola izeneko eskolaren 2013ko programazioaren aurkezpenetan parte hartu du, eta programazioaren jarraipena egin du.
- Emakumeen aurkako Indarkeriaren Batzordearen lan-saioetan eta osoko bilkuretan parte hartu du.
- Udalerrietako berdintasun agenteen lidergoa indartzeko prestakuntza-ekintza programan parte hartu du.

2013an,
59 da
Sareko kideak diren udalerrien
kopurua.

- Azaroaren 25eko kanpainaren barruan (Emakumeen aurkako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna), Beldur Barik programa kudeatu eta koordinatu du, eta programa hori diseinatu eta ezartzeko lan-batzordeetan parte hartu du. Beldur Barik Topaketan eta 2013ko lehiaketaren sari banaketan parte hartu du.

Berdinbidea - Emakume eta Gizonen Berdintasun arloan udalerrri txikiei Aholkua Emateko Zerbitzua

Berdinsareak lan handia egin du berdintasun-politikak sustatzeko, jende ugari bizi den udalerrietan, batez ere. Nolanahi ere, sare horretan sartzeko beharrezkoa denez zenbait baldintza betetzea langileen kontratazioari, berdintasun-planak egiteari eta berdintasun-politiketarako aurrekontu jakin bat erabiltzeari dagokionez, biztanle gutxiko udalerrri gehienentzat zaila da Berdinsarean sartzea.

Ikusita udalerrri txikiek arazoak dituztela emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean aurrera egiteko planak, programak eta ekintzak lantzeko, hiru foru-aldundiak lankidetzat-hitzarmenak sinatu zituzten 2009an eta 2010ean EUDELekin, udalerrri txikietan berdintasun-politikak dinamizatu eta aholkatzeko zerbitzuak martxan jarri ahal izateko.

Hauek dira zerbitzu horien helburuetako batzuk:

- Udal txikiei emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko politikak abian jartzeko aukera ahalbidetzea, Berdinsarearekin bat datorren estrategia bat medio, epe ertainera aipatu sarean sartzeko aukera izan dezaten.
- Udalerrietan, mankomunitateetan, eskualdeetan edo kuadrilletan elkarrengana hurbil daitezen, esperientziak truka ditzaten, koordinatu daitezkeen eta elkarrekin jarduerak egin ditzaten erraztea.

Jarduera hauek egiten dira, adierazitako helburuak betetzeko:

- Laguntza teknikoak ematen zaie udalerrri txikiei, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatu eta emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko programak eta ekintzak egin ditzaten.
- Topaketak eta bilerak antolatu eta koordinatzen dira mankomunitate, eskualde eta kuadrilletan, udalerrri txikietan esku hartzeko estrategiak ezartzeko, esperientziak trukatzeko eta egindako lanaren jarraipena egiteko. Horren guztiaren xedea da parte hartzen duten udalerrien arteko sinergiak sortu edo indartzea.

2011. urtean, eta dagokion hitzarmena sinatuz, Emakundek hitzeman zuen udalerrri horietan dinamizazio eta aholkularitza prozesuan egiten diren jarduerak egiteko finantzaketan parte hartuko zuela. 2012an beste hitzarmen bat sinatu zen, konpromisoa berritzeko, eta 2013. urtean isilbidez luzatu zen. Ondorioz, Emakundek hartzen diren erabakien jarraipena egiteko bileretan parte hartzen du.

Udalerriei, kuadrillei eta mankomunitateei diru-laguntzak emateko deialdia, emakumeen eta gizonen berdintasunerako diagnostikoak eta/edo planak egin eta ebalua ditzaten

Diru-laguntzen deialdiak dira Emakundek udalerriei laguntza teknikoak emateko erabiltzen duen beste tresna bat. Tokiko erakundeei ematen zaizkie diru-laguntza horiek, emakumeek eta gizonak udalerrietan bizi duten egoeraren diagnostikoak egiteko, eta tokiko planak egiteko eta ebaluatzeko, EAERako Esparru Planaren³ ildo nagusiei jarraituz. 2013an deialdia egin da, eta gauzatzeko epeak 2014ko amaierara arte iraungo du. Deialdian erabili den diru kopurua 638.400 euro izan da, 255.360 euro 2013ko ekitaldian eta 383.040 euro 2014ko ekitaldian. Gainera, udalerritik txikiak eta berdintasun-politikak garatzen ibilbide laburrena duten udalerriek diru-laguntza horiek eskuratu ahal izateko estrategiak garatu dira, eta prozesu sistematiko bat abiarazi da horretarako.

47 udalerriri eta 7 mankomunitate, kuadrilla eta/edo talderi dagozkien 58 proiektu diruz lagundu dira. 11 udalek egingo dute, lehenengo aldiz, berdintasunerako diagnostiko eta/edo plan bat ([1. eranskina ikusi. Udalerririk, Kuadrilla eta Mankomunitate onuradunen zerrenda](#)). Gainerako proiektuak diagnostiko berriak, berdintasun-plan berriak eta haien ebaluazioak egiteko edo diagnostiko eta plan sektorialak garatzeko dira. Haietatik 8 udalek egingo dituzte emakumeen aurkako indarkeriaren arloko protokoloak.

Berdintasun planei buruzko txostenak eta beste lankidetzak batzuk

Emakunde sortzeko legeak eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak ezarritakoaren arabera, Emakundek EAERko berdintasun-politketarako jarraibide orokorrak jasotzen dituen plan orokor bat egin behar du, legegintzaldi bakoitzaren hasieran. Lege horrek berak agintzen duenari jarraituz, sail, erakunde autonomiadun, foru aldundi eta udal guztiek beren planak egin behar dituzte, adierazitako plan orokor horretan xedatutako jarraibideen arabera.

Gainera, 4/2005 Legearen 15.4 artikulua ezartzen duenez, Eusko Jaurlaritzako sailtako eta foru- eta toki-administrazioetako berdintasun-planen txostena egin behar du Emakundek, plan horien edukiak Jaurlaritzaren plan orokorreko esku-hartze ildoetara eta jarraibideetara egokitzen diren edo ez ikusteko.


Txosten horiek egiteko, Emakundek hainbat irizpide hartzen ditu kontuan, planak Legearen edukien eta Jaurlaritzak onetsitako Plan Nagusiko helburu eta estrategien arabera diseina daitezten: erakunde bakoitzaren berezko beharrezko diagnostikoan oinarrituta egotea, alderdi teknikoan, alderdi ekonomikoan eta denbora aldetik plan bideragarriak izatea, eta diagnostikoan definitutako errealitate sozialaren aldaketari egokitutako estrategia, helburu eta ekintzak definitzea.

³ Gaur egun, EAERko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana.



Aurten Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 17 Udal Plani eta mankomunitateen 2 plani buruzko txostenak egin dira. Honakoak dira: [\(2. eranskina ikusi. Emakume eta gizonen berdintasunerako udal-planak eta mankomunitate-planak.\)](#)

Emakume eta gizonen
berdintasunerako
17 udal-plan eta 2
Mankomunitate-plan



■ Lehenengo Planak: **5** (%29)
 ■ Bigarren Planak: **9** (%53)
 ■ Hirugarren Planak: **3** (%18)

Foru eta toki administrazioen eremu horretan aipatzekoak diren beste lankidetzak batzuk hauek dira: Bizkaiko Foru Aldundiko Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia eta etxeko lanetan diharduten emakumeen egoera eta baldintzei buruzko adituen taldean parte hartzea (Immigrazio Gaietarako Bilboko Kontseiluak zuzentzen du talde hori).

2.1.3. Beste instituzio eta erakunde batzuekiko lankidetzak

Alde batetik, Administrazio Orokorrarekiko eta, bestetik, toki eta foru administrazioekiko harremanaz gain, Emakundek egitura egonkorra dauzka gure gizartea osatzen duten beste instituzio eta erakunde batzuekin koordinatzeko eta parte hartzeko.

Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundeen arteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordea

2009ko otsailaren 3an, Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundeen arteko II. Akordioa sinatu zen, eta Jarraipen Batzordea eratzeko erabakia hartu zen bertan. Akordioaren arabera, honako hauek dira, besteak beste, Batzordearen eginkizunak: Akordioan adierazitako neurriak eta jarraibideak behar bezala aplikatzen direla bermatzea, jarduera bateratuak proposatzea, erakundeen arteko koordinazioa hobetzeko proposamenak egitea, eta jardura-protokoloaren edukiak sor daitezkeen egoera berrietara egokitzeko proposamenak egitea.

Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten biktimei laguntza ematen dieten erakundeak hobeto koordinatzea du xede, biktimei babes osoa eman ahal izateko arlo sanitario, polizial, judizial eta sozialean. Horretarako, jarduteko jarraibide eta irizpide batzuk ezarri behar dira, profesionalak jarraitu beharrekoak, bakoitzari dagokion eremuan bai eta erakundeen arteko harremanetan ere. Batzordeko kide dira, Emakundeko Zuzendaritzaz gain, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltza Nagusia, Eusko Jaurlaritzako sail batzuk (Osasuna, Segurtasuna, Herri Administrazio eta Justizia, Enplegu eta Gizarte Gaiak, eta Hezkuntza Saila), EAEko hiru aldundiak, Eudel, Arartekoa, Legelarien Euskal Kontseilua eta Euskadiko Sendagileen Kontseilua.

Batzordeak bilera egin zuen ekainaren 27an. Bilera horretan informazioa eskaini zen emakumeen aurkako indarkeriaren azken kasuei buruz. Sailarteko Talde Teknikoaren lehentasunak eta laneko proposamenak aurkeztu eta onetsi ziren, jarduteko prozedura aurkeztu eta onetsi zen —etxeko tratu txarreatatik edo sexu erasoengatik heriotza gertatzen denerako—, eta Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren zereginak berriro txertatzeko Emakundek egindako proposamena onetsi zen.



Lituania

Erakundeen arteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordea



Zeregin horiek Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuaren bidez birtxertatu ziren. Dekretu horrek Lehendakaritzari esleitu zion genero-indarkeriaren biktimez arduratzeko politikak zuzendu eta koordinatzeko eskumena, eta aurreko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza (aurrerantzean GIBLZ) Lehendakaritzari atxikitzea ezarri zuen. Halaber, Lehendakaritzako idazkari nagusiaren 2013ko urtarrilaren 31ko Ebazpenaren bidez, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendaria izendatu zen GIBLZko titularrari esleituriko eskumenak eta egitekoak gauzatzeko ardura duen organo gisa. Gainera, aipatu den 20/2012 Dekretua aldatzen duen martxoaren 1eko 8/2013 Dekretuaren arabera, erakundeari atxiki zitzaizkion GIBLZren zereginak eta baliabide materialak eta pertsonalak.

Emakundek barneko gogoeta egin zuen ordura arte erakunde gisa zuen eredia aldatzearen onura edo desabantaileri buruz. Hau da, Euskadin berdintasun politikak diseinatu, bultzatu, koordinatu, ebaluatu behar dituen eta politika horietan aholku eman behar duen erakundea. Gogoeta hori egin ondoren, aurreko IX. Legegintzaldian GIBLZk egiten zituen zeregin eta zerbitzuak Zuzendaritza hori sortu aurretik garatzen zireneko eskumen-arloei berriro esleitzea beharrezkotzat jo zuen. Horretarako, indarkeriaren biktime diren emakumeei erantzuna emateko zeregina duten erakundeekin alderatzeko eta adosteko prozesua abian jarri zuen.

Prozesuaren abiapuntu gisa, indarkeriaren biktime diren emakumeei arreta emateko zerbitzuen arloko eskumen-esparru arauemailea nahiz Zuzendaritza hori sortzearen ondorioz emakumeen aurkako indarkeria egoerei eman beharreko erantzunaren egituratze praktikoan sortutako aldaketak eta baten zein bestearen indargune eta ahulguneak aztertu ziren. Geroago, Emakundek zerbitzuak berriro esleitzeko proposamena egin zuen. Proposamen hori arlo politiko eta teknikoan alderatu zen Jaurlaritzako eta indarkeriaren biktime diren emakumeen arretan parte hartzen duten gainerako erakundeetako sailekin. Horretarako, alde biko topaketak eta bilerak egin ziren Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko II. Akordioaren Erakundearen arteko Talde Teknikoarekin. Zerikusia duten aldean artean adostasun handia lortu zen. Horregatik, proposamena aurkeztu ondoren, Erakundearen arteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordean baloratu zen, eta Batzorde horretan aho batez onetsi zen.

Hartutako erabakiak Lehendakariaren abenduaren 2ko 34/2013 Dekretuaren bidez formalizatu ziren. Dekretu horren bidez bigarren aldiz aldatu zen dekretu hau: Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen dekretua.

Prozesu horren ondorioz, Emakunden emakumeen aurkako indarkeriaren arlo berria sortu zen. Hala, indartu egin ziren Emakundek arreta hobetzeko dauzkan koordinazio zereginak, baita Emakunde sortu zenetik EAEn sustatzen den berdintasun arloko esku-hartze eredia ere. Zerbitzu horrek gidaritza- eta koordinazio-zereginak indartuko ditu Jarraipen Batzordean eta sexu-erasoak eta etxeko tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundearen esparruan osatutako lantaldeetan.

Zereginak berriro esleitzearen ondorioz, Emakumearen Euskal Erakundeak, prebentzioan lan egiteaz gain, prebentzio eta arreta programa eta zerbitzuak koordinatzen eta bultzatzen ditu, eta ebaluatu ere egiten ditu. Jaurlaritzako eta foru eta toki erakundeetako sailek, berriz, bakoitzak bere eskumenen barruan, zuzeneko zerbitzuak ematen dituzte. Beraz, indarkeriaren biktime diren emakumeei arreta emateko eredu bat ezarri da, lehendik zeuden zerbitzuen bitartez, eta ondorioz, baliabide pertsonalak eta ekonomikoak berriro esleitu dira. Hala, IX. Legegintzaldia baino lehenago egiten zuen bezala, Herri Administrazio eta Justizia Sailak bere gain hartu ditu indarkeriaren biktime diren emakumeei zuzenean laguntzeko zereginak, Biktimei arreta emateko Zerbitzuaren bitartez, eta Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak, berriz, Etxeko biolentzia nozitu duten emakumeei laguntzeko telefono bidezko zerbitzua, ordainketa bakarreko laguntza ekonomikoak, Eusko Jaurlaritzan dauden baliabideen kudeaketa integratua eta emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta zuzena ematen dieten profesionalen aholkularitza. Hori guztia, betiere, jarraipen batzordearen eta dagozkion talde teknikoaren esparruan koordinatuta. Hain zuzen ere, lehenago azaldu den bezala, haien lana indartu egin da Emakunde emakumeen aurkako indarkeriaren arloa sortuz.

Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistaren Euskal Behatokia, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza iraungiak sortua, Emakundera atxiki da.

Halaber, desagertutako Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak sortutako Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistaren Euskal Behatokia Emakunderi atxikita geratu da. Behatokiko kideak, aldi berean, Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundearen arteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordeko kideak dira. Alde horretatik, Behatokia sortzeko dekretua indargabetzea eta bere zereginak Batzordearen esku uztea proposatu da. Horretarako talde tekniko bat sortuko da, eta talde horrek behatokiak planteatutako helburuak garatzeko beharrezkoak diren zeregin teknikoak hartuko ditu bere gain. Hain zuzen ere, hauek dira helburuok:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen aurkako indarkeria matxistaren adierazpenen ezaugarriak, kausak eta ondorioak ikertu, aztertu eta zabaltzea.
- b) Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen aurkako indarkeria matxistaren egoera identifikatzea ahalbidetzen duten diagnostikoak egitea.

Talde tekniko horrek, Informazio Sistemen Taldea izenarekin, halaber, 2013rako lan-helburu hau planteatzen du: informazioa biltzeko sistema homoginoa sortzea Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde guztientzat. Horretarako, erakunde bakoitzarekin bilerak egin dira, eta informazioa bildu da, erakunde haietarako bakoitzaren baliabideak ezagutzeko, eta programa edo zerbitzu bakoitzean emakumeen aurkako indarkeriaren arloan zer biltzen den eta datuak nola biltzen diren jakiteko. Hala, informazioa biltzeko sistemen eta erakunde bakoitzean bildutako datuen diferentziak eta adostasun-guneak eta konparagarritasuna identifikatu ziren; gainera, funtsezkoak diren irismen-adierazleak finkatu ziren. Gainera, parte hartu zuen erakunde bakoitzari aurrera egiteko hobekuntza-bide estrategikoak azaltzen dituen proposamen bat bidali zaio, helburu komunak lortzeko helburuz. Lanak aurrera jarraituko du datozen urteetan. Hala, etorkizunera begira, erakundeetan erregistratzen diren adierazleak zabaldu ahal izango dira, eta irismen-adierazleez gain prozesuari eta emaitzari buruzko adierazleak ere sartuko dira.

Prozesu horren emaitza gisa jarraipen sistema bat taxutuko da. Sistema horri esker, Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen aurkako indarkeriaren arloan dauden

harrera-baliabideen eraginkortasuna eta irismena sistematizazio eta maiztasun handiagoz ebaluatu ahal izango dira, horiek ebaluatzea Emakunderi dagokion aldetik, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko 51.2 artikulua ezarritakoa betez.

Beste alde batetik, Emakunde buruzagitza eta koordinazio lanetan aritu da emakumeen aurkako indarkeriaren arloko jardura-protokoloak homogeneizatzeko prozesuan. Hala, emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen 62. artikulua bete du, bertan ezartzen baita protokolo horiek garatzeko beharrezkoa. Ildo horretan, Erakundeak protokoloei buruzko txostenak egiten ditu. Hala, toki administrazioek erreferentziarako eta segurtasunerako esparru bat izango dute, baldin eta toki administrazioek hala eskatzen badute. Aurten Aguraingo Kuadrillaren protokoloaren proposamenari buruzko txostena egin da.

2013an hasi den beste lan-prozesu bat emakumeen sexu organoen erauzketa orokorrean aztertu eta lantzeari buruzkoa izan da, erauzketa hori emakumeen aurkako indarkeria mota bat den aldetik. Prozesu hori WASSU-UAB erakundearen lankidetzarekin egiten ari da, eta urtean zehar emakumeen sexu-organoen erauzketak Euskadin duen egoeraren mapa egin da, EAEen emakumeen sexu-organoen erauzketa prebenitzeko metodologiko bat aztertzeaz gain.

Emakunderen Aholku Batzordea- Emakume-elkarteen partaidetza organoa

Emakumeek beraiek berdintasun politiken diseinuan parte hartzea orokorrean aintzat hartuta dagoen beharrezkoa da. Horregatik, Emakunderen lehentasunezko jardura ardatzetako bat emakumeen elkarten sarea sustatzea eta sendotzea da. Horretarako, haiek esku-hartze publikoko esparru guztietan berdintasun-politiken diseinuan eta erabaki-hartzean parte hartzea sustatzen du. Lan horren ondorioz, elkarteekin harremana izateko eta trukeerako mekanismoak sortuz joan dira, eta elkarte horien arteko trukea eta lan koordinatua ere sustatu eta babestu da. Horren guztiaren emaitza da Emakundeko Aholku Batzordea, eta horren guztiaren emaitza da, halaber, elkarteek gero eta gehiago laguntzen dutela gizartea sensibilizatzen eta aldatzen, berdintasun handiagoa lortzeko.

2013an, Aholku Batzordeak zeregin garrantzitsua izan du VI. Berdintasun Plana egiteko prozesuan, eta Euskadiko elkartegintza mugimenduari mintzatzeko eta komunikatzeko



Deustuko
Unibertsitatea.
Indarkeria Masterra

Dominikar
Errepublika



organo gisa dauzkan ohiko zereginak egiten jarraitu du. Emakundek, berriz, Aholku Batzordeak EAEko Administrazio Publikoaren maila guztietan sortutako sektoreko partaidetzarako organoetan ordezkari izatea sustatzen jarraitu du. Horrez gain, udalerrietan, eskualdeetan eta lurralde historikoetan elkarte guztiekin bilerak egitea bultzatu du.

Emakundek emakumeen parte-hartze soziopolitikorako dinamika eta estrategia berriak bilatzen, taxutzen eta sendotzeko lan egiten du. Dinamika horietako batzuk Jaurlaritzako beste Sail batzuekin lankidetzan egin dira. Esparru horretan elkarteekin lan egiten dugu lurralde eremuko bileren bitartez. Bilera horien helburuak sareak sendotzea, modu egonkorrean koordinatzea eta denon intereseko ekimen eta proiektuak adostea dira.

Emakundeko Aholku Batzordeko elkarte-ordezkariek lurralde historiko bakoitzean parte har dezaten bultzatu da, elkarrekin lan egitearen kultura sortzeko. Horri esker, ekintza zehatzak martxan jarri dira eta etorkizunerako konpromisoak zehaztu dira, emakumeek parte-hartze aktiboa izateko elkarte-sarearen bidez.

2013an hiru bilera egin dira, lurralde bakoitzeko bat. Bilera horietan, emakumeen elkarteek Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako VI. Planaren diseinuaren lehenengo fasean parte hartu zuten beren ekarpenen bidez. Emakundek lantalde batzuk antolatu zituen, prozesu horren dinamizazioa errazteko.

BEGIRA, Publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko aholku batzordea

Begira 1998an sortu zen Emakunderen barruan, la publizitatearen arloan emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna lortzeko helburuz. Komunikabideek gizartean, errealitatearen pertzepzioan, eta balioen eraikitzean duten influentzia nabarmena kontuan izanik, 2013an Emakundek komunikabideen arloa ere batzordearen barnean jorratzea erabaki du. Ekainaren 11ko 360/2013 Dekretuaren bidez, batzorde berria arautu da. Batzordearen lan- ildo estrategikoetako batzuk hauek dira: publizitatean sexismoa identifikatzeko dekalogoia egitea, publizitateko eta hedabideetako sexismoaren arloko kode etikoa egitea, eta sentsibilizazio lana egitea, herritarrak nahiz publizitate enpresak eta hedabideak xede direla, batez ere prestakuntza, informazio eta dibulgazio jardueren bitartez.

Batzordearen helburuak hauek dira, batik bat: komunikabideetan eta publizitate-euskarrietan pertsonen -sexu batekoak edo bestekoak izateagatik- giza duintasun txikiagoa edo handiagoa dutela eta objektu sexual soilak direla adierazi ez dadin bermatzea, eta emakumeenganako indarkeria justifikatu, hutsaldu edo horretara bultzatzen duen

Emakundek
elkarteekin lanean dihardu lurralde-bileren bitartez, sareen finkapena eta koordinazio egonkorra, eta ororen intereseko ekimen eta proiektuen bat-etortzea dela bilera horien helburua.

edukirik egon ez dadin bermatzea. Bestalde, irudi berdinzalea, orekatua, plurala eta edertasun-kanon eta sexu-estereotiporik gabea sustatu behar dute, eta emakumeek bizitzaren eremuetan betetzen dituzten funtzioetan duten partaidetza aktiboa berma dezatela, bereziki kontuan hartuta haur eta gazteentzako programazioaren edukiak.

Begirak herritarrek edota erakundeek egindako keak jasoko ditu, eta, prozedura zuzentzaileak proposatuko ditu edo, behar izanez gero, dagokien organoetara bideratu, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005eko Legeak jasotzen duenaren arabera zehapen prozedurak erabakitzeke.

Emakunderi atxikitako Batzorde honetako kideak hauek izango dira: Emakunde bera, idazkari nagusia buru dela, Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura, eta Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailletako, EITBko, Euskal Herriko Unibertsitateko, Emakundeko Aholku Batzordeko eta EKA kontsumitzaileen elkarteko ordezkariak. Horiekin batera publizitatean eta komunikazioan adituak diren pertsonak osatzen dute batzordea. Lehenengo ohiko bilera 2013ko azaroaren 28an egin zuen. Bilera hartan, batzordea eratu zen eta kideak aurkeztu ziren, Emakundek hedabideen eta publizitateen arloan egindako ibilbidea erreparatu zen eta gai hauek landu ziren:

- BEGIRarentzako 2013-2014 aldiko Lan Planaren proposamenari buruz egindako ekarpenak.
- Publizitatean sexismoa detektatzeko Dekalogoaren proposamenari buruz egindako ekarpenak.
- Administrazioak eta herritarrek publizitate sexistaren inguruan egindako keak eta salaketak jaso eta tramitzeko Prozeduraren proposamenari buruz egindako ekarpenak.
- BEGIRaren Azterlan, Memoria eta Txostenen proposamenari buruz egindako ekarpenak.
- Hedabideen eta publizitatearen arloko Kode Deontologikoei buruzko proposamenak.
- BEGIRA Batzordearen Hedapenari buruzko proposamenak.

Beste lankidetzak batzuk: unibertsitateak, berdintasun-erakundeak, nazioarteko instituzioak

Unibertsitateak: Aurreko urteetan egin izan den bezala, Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) antolatutako Emakume eta Gizonen Berdintasunaren gaineko Masterrean laguntzen jarraitu du Emakundek. Master horren helburua profesionalak gaitzea da, berdintasun-eragile gisa lan egin dezaten, bai administrazioan bertan, bai erakunde eta entitate pribatuetan. Lankidetzak horren jarduera batzuk izan dira diru-laguntza izendun bat ematea, irakaskuntzan parte hartzea eta Emakunden praktikak egiteko aukera ematea; zehazki, pertsona batek Berdintasunerako Defentsa Erakundearen egin dituzten praktikak, eta beste batek, Gizonduz programan.

Emakumeen kontrako indarkerian esku hartzeko unibertsitate master ofiziala (Deustuko Unibertsitateak antolatua) garatzen ere lagundu da, ikasleei bekak emanez. Unibertsitate horrekin beste modu batean ere lankidetzan ari da Emakunde: 2014an egingo den Emakume Teknologoaren Ada Byron Sariaren deialdia eta beste jarduera osagarri batzuk diseinatzeko parte hartu du. Ekimen horren helburuak hauek dira: teknologiaren arloko emakume profesionalen lana jendaurrean aitortzea eta erakustea. Izan ere, lan hori ez du behar adina ezagutzen gizarteak, oro har, nahiz eta ekarpen handiak egin emakumeak hainbat esparrutan. Helburua da saria jasotzen duten emakumeak gaur eguneko neska gazteentzat eredu eta pizgarria izan daitezela eta bokazio teknologikoak areagotu daitezela.

Estatuko berdintasun-erakundeak: Hezkuntzaren arloan, Emakundek INTERCAMBIA Sarean parte hartzen jarraitu du. Sare hori Emakumearen Institutuak eta Hezkuntza Ministerioak bultzatu dute, eta berdintasun-arloko politikak sustatzen dituzten erakundeetako pertsonak eta, orobat, autonomia-erkidego guztietako hezkuntza-sailekoek eratzen dute.

EBko erakundeak eta programak: Emakunde Genero Berdintasunaren Europako Institutuak kudeatzen duen Euro Gender sarean sartu da, eta Institutu horrek gonbidatuta, ekitaldi hauetan parte hartu du: Generoaren mainstreamingaren eraginkortasunari buruzko Biltzarrean, Generoaren mainstreaminga inplementatzeko moduari buruzko Mintegian eta Lazo Zuriaren Kanpainari buruzko online jardunaldian.

Beste alde batetik, EGEF eta EGF egiturazko funtsei dagokienez, Emakundek funts bien Jarraipen Batzordean parte hartzen jarraitu du. urteko txostenean ekarpenak egin ditu eta Batzordeen urteko bileretan egon da: 2007-2013 aldiko Europako Gizarte Funtzaren (EGIF) Programa Eragilearen Jarraipen Batzordean eta 2007-2013rako Eskualdeen Garapenerako Europako Funtzaren (EGEF) Programa Eragilearen Jarraipen Batzordean.

Bi funts horien laguntzaz finantzaturako programak egiten dituzten erakundeek berdintasunaren alorrean dituzten estrategiak indartzeko, bai egungo 2007-2013 programazio-aldian, bai hurrengo 2014-2020 programazio-aldian, lankidetzan jarraitu da Lanbiderekin (EGIFen bitarteko erakundea) eta Ekonomia Zuzendaritzarekin (EGEFen bitarteko erakundea).

Emakume teknologoarentzako «Ada Byron» sariaren helburua da denon begien bistara ekartzea teknologiaren sektoreko emakume profesionalak, haien lana aurrerapen garrantzitsuak ekartzen ari baita eremu ezberdinetan.

Lankidetzaren horren barruan jarduerak hauek egin dira:

- Programazioaren hurrengo aldia berdintasuna txertatzeari buruz batera finantzatzeko programak dauzkaten erakundeentzako prestakuntza jardunaldia. Jardunaldi hori Egitura-funtsetako Berdintasun-politiken Sarearekin batera antolatuta da.
- Egiturazko Funtsetatik lehentasunekoak diren esparru batzuetan eta besteetan generoaren araberako eraginaren aurretzeko ebaluazioa egiteko gidaliburu batzuk egitea; hona hemen esparru horiek: I+G+b; ETEak; garraioa eta mugikortasuna; informazioaren gizarteak; Enplegua. ([Ikus. 2.1.1. atala](#)).
- Erakunde arteko Batzordearen barruan egitura-funtsetan berdintasunari buruzko talde teknikoak sortzeko proposamena aurkeztea.

Azkenik, zera nabarmendu behar da: Emakunde, 2007-2013 aldiko egitura-funtsetako Berdintasun-politiken Sareko kide den aldetik, Sarearen Osokoak egindako zazpigarren bilan parte hartu zuen, baita Sarearen barruan sortutako lantaldeetan ere. Sare hori Emakumearen Institutuak eta EGIF eta EGEF funtsen agintari kudeatzaileek sustatzen dute.

NBEko eta nazioarteko erakundeak: Nazioarteko lankidetzari dagokionez, berriz, honako jarduerak hauek egin dira:

- Kanpoko Ekintzako Idazkaritzarekin lankidetzan aritu gara, NBE-Emakumeak erakundearekin alde biko lankidetzaren esparru bat ezartzeko, jakintza, esperientziak eta jardunbide egokiak trukatzeko lankidetzaren bide egonkorrak eta iraunkorrek egon daitezkeen, alderdi politikoan zein teknikoan, eta, hala badagokio, baterako proiektu edo jardunak egin ahal izan daitezkeen.
- Iberoamerikako Idazkaritza Nagusiaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean izenpetutako lankidetzaren esparru-akordioa lantzen parte hartu dugu. Akordio horretan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lankidetzaren eremuetako bat dela azaltzen da.
- Emakundeko zuzendariak administrazio publikoari buruzko mintegi batean parte hartu zuen. Mintegi hori Administrazio Publikoaren Ministerioak eta Dominikar Errepublikako Erregidorearen Elkarteak, ASODOREK eta Dominikar Errepublikako Udalen politikarien Batasunak, UNMUNDOK antolatuta zuten, Dominikar Errepublikan. Han, abuztuaren 25ean, «Las políticas de igualdad en la profesionalización de la función pública municipal. Emakunde y las políticas de igualdad en el País Vasco» izenburuko txostena aurkeztu zuen.

2.2. Politika publikoaren ebaluazioa

Berdintasun eta genero-politiken ebaluazioa, indarreko legediak berdintasunaren arloan ezartzen duen eta nahitaez bete behar den agindua izateaz gain, kontu ematea xede duen jarraipen mekanismoa da. Aldi berean, ikasteko eta hobetzeko tresna da. Horri esker, inplementatutako politikek norainoko arrakasta duten jakin daiteke, eta

etorkizunean erabakiak hobeto hartu ahal dira. Alde horretatik, Emakundek 1991n ekin zion berdintasun-politikak ebaluatzeari, eta ibilbide hori ezaguna eta aitortua da politika publikoen ebaluazioaren alorrean, bai aldizkakotasunari eta sistematizazioari dagokionez, bai bere deszentralizazio-mailari dagokionez.

2013an, botere publikoek berdintasun plana gauzatzuz 2012an egindako jarduerari buruzko informazioa bildu eta aztertu da. Emandako informazioa oinarri hartuta, txosten hauek egin dira:

- EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako V. Plana garatzeko eta ezartzeko, urteetan botere publikoek egindakoari jarraipena, 2012. urteari buruz.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren esparruarekin zerikusia duten Eusko Jaurlaritzako sailen eta sail horietako organismo autonomo eta erakunde publikoen jardueraren jarraipena, 2012. urteari buruz.

2.3. Zeharkako jardueraren esparru eta zerbitzuak

Emakunderen eguneroko lanean erakundearen nahiz erakunde osatzen duten arlo batzuen eta besteen eguneroko jardunean zeharkako eragina duten zerbitzuak eta lan-eremuak daude. Zeregin juridikoak, prestakuntzakoak, dokumentaziokoak eta ikerkuntzakoak dira. Ezinbestekoak dira Emakunderen arlo bakoitzak programatutako jarduerak egin ahal izateko.

2.3.1. Aholkularitza juridikoa

Emakunderi esleitutako eginkizunetan parte hartu du Emakundeko Aholkularitza Juridikoak: zenbait gairen barneko eta kanpoko izapideak egiten lagundu du –bereziki diru-laguntzen eta hitzarmenen izapideak egiten–, eta arau juridikoak egiteko prozeduretan ere lagundu du; hau da, aplikagarri den araudia berrikusten, haren jarraipena egiten eta eguneratzen. Horrez gain, Eusko Jaurlaritzako sailei, foru aldundiei eta EAEko udalei Emakunderen jarduera-eremuko gaiekin lotutako aholkularitza juridikoa ematen jarraitu du.



Zehazki, honako hauek izan dira Aholkularitza Juridikoaren eginkizunak:

- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen egitura organiko eta funtzionalari buruzko dekretua aldatzeko dekretua egitea eta tramitatzea, lege hauetan xedatua betez: otsailaren 16ko 3/2012 Legea, Emakumeen eta Gizonen Bertintasunerako Legea eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeari buruzko Legea aldatu zituena; eta abenduaren 15eko 20/2012 Dekretua, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatu zituena, eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatu zituena.
- «Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzen laguntzeko Erakundearen» aintzatespena arautzen duen Dekretua prestatu eta tramitatzea, emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko 41. artikulua bete eta hura garatzeko.
- BEGIRA Publizitatearen eta komunikazioaren erabilera ez-sexista egiteko aholku-batzordearen Dekretuaren proiektua prestatu eta tramitatzea.
- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen bitartez Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Segurtasuneko Sarrailagileen Federazio Nazionalaren arteko lankidetzaren hitzarmena prestatu eta tramitatzea, Euskal Autonomia Erkidegoan genero indarkeriaren biktime diren emakumei sarrailagintza zerbitzuak emateko.
- Generoaren araberako eraginaren aurreko ebaluazioaren txostenak egitea, 4/2005 Legeko 21. artikuluan ezarritakoari jarraituz.
- Eusko Jaurlaritzako sailletako, foru-aldundietako eta tokiko erakundeetako berdintasun-planen txostenak egitea, 4/2005 Legearen 15. artikulua betez.
- Txostenak egitea eta ebazpen-proiektuak prestatzea, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean laguntza teknikoa eman dezaketen lankidetzaren erakundeak izendatzeko edo, hala badagokio, izendapen hori kentzeko.
- Txostenak egitea eta ebazpen-proiektuak prestatzea, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean laguntza teknikoa eman dezaketen aholkularitza-entitateak homologatzeko edo, hala badagokio, homologazio hori kentzeko.
- Txostenak eta ebazpenak egitea Emakundeko kontratazioetarako eta kudeaketa-aginduetarako, eta Emakunderen kontratazio-mahaietara joatea.
- Emakundek lehiaketa-bidez ematen dituen diru-laguntzen eta laguntzen deialdi, emakida eta bestelako intzidentzien (murrizketak, itzulerak, jardueraren aldaketak, errekursoen ebazpena, etab.) ebazpen-proiektuak izapidetzea. Laguntza horiek izan daitezke:
 - Emakumeen elkarteak sustatzeko,
 - Udalentsat eta beste toki-erakunde batzuentzat,
 - Aholkularitza-entitate homologatuak kontratatu nahi dituzten enpresa eta erakunde pribatuentzat,
 - Ikerlanak egiteko,
 - Ikerlanak argitaratzeko (I. Lehiaketa),
 - Emakumeen kontrako indarkerian esku hartzeko unibertsitate master ofiziala egiteko.



- Diru-laguntza izendun eta zuzenak prestatu eta tramitatzea erakunde hauentzat:
 - «Maite Albiz» Emakumeen Dokumentazio Zentroarentzat, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko dokumentu-funtsak eskuratu, kudeatu, digitalizatu eta zabaltzeko.
 - Euskal Herriko Unibertsitatearentzat, «Emakume eta Gizonen Berdintasunaren gaineko online Masterra» emateko 2013-2014 ikasturtean.
 - UPV/EHUko Uda Ikastaroaren Fundazioari, «Miradas de género a la ciencia, la tecnología y la innovación» ikastaroa egiteko.
 - Eudel-Euskadiko Udalen Elkartearentzat, Berdinbidean (Udalerrri txikietan berdintasun-politikak dinamizatu eta aholkatzeko zerbitzua) eta Berdinsarea (Berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako Euskadiko Udal Sarea) garatzen laguntzeko.
 - Argiri Emakume Elkartearentzat, Irungo Alarde mistoa antolatzeko.
 - Askabide Elkartearentzat, Sexu-esplotaziorako Salerosketaren biktima diren emakumeei arreta osoa emateko programarako.
- 2013ko Emakunde Sariaren deialdia eta ebazpena izapidetzea.
- Jabetza intelektualaren, irudi-eskubideen eta marken erregistroaren gaineko aholkularitza ematea eta gai horiekin lotutako dokumentuak egitea eta izapidetzea.
- Txosten juridikoak egitea Emakundeko zuzendaritzak, beste administrazio publikoek eta partikularrek eskatuta emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko hainbat alderdiri buruz: zaintza partekatua, haurdunaldiaren borondatezko etendura, legediaren aldaketak, ekintza positiboaren ezarpena, etab.
- Herritarren, hainbat erakunderen, Eusko Legebiltzarraren, funtzionarioen eta Emakundeko langileen kontsultei erantzutea eta kontsulta horiek bideratzea. Hainbat gairi buruzko kontsultak izan daitezke: laguntzen deialdiak eta emakida, emakume eta gizonen berdintasunari buruzko legedia, Administrazioako uztartze-eskubideak, datu pertsonalen lagapena, publizitatea, etab.
- Erakundearen administrazio egintza guztien tramitazio elektronikoa.

2.3.2. Prestakuntza

Emakundek, Europako eta/edo nazioarteko erakunde ugari bezala, profesionalen prestakuntza generoarekiko sentsibilitatea adierazten duten politikak garatzeko oinarritzko estrategia dela uste du. Halaber, emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legeak garrantzi handia ematen dio prestakuntzari.

Prestakuntzarekin lotutako jarduerak zenbait jarduera-ildoren inguruan egituratzen dira Emakunden:

Aholkularitza espezializatua

Beste instituzio batzuei prestakuntza-jarduerak antolatzeko aholkuak ematen dizkie, eta edukiak diseinatzen, irakasleak eta materialak bilatzen eta erakundeak koordinatzen laguntzen die. Zeregin hori gero eta garrantzitsuagoa bihurtzen ari da azken urteetan.



Zeregin horri dagokionez, nabarmentzekoa da HAE Erekin egindako aholkularitza eta lankidetzaren lana, Administrazio Orokorren eta bere erakunde autonomoen zerbitzuko langileentzako 2008-2018 aldiko berdintasun arloko Zeharkako Prestakuntzako Plana garatzeko.

Horren harira, HAE Eri eta Gobernuak sailei 2013rako planifikatutako trebakuntza ekintzak diseinatzeko eta egikaritzeko aholkularitza eta laguntza eman zaizkie. Zehazki, Emakundek honako prestakuntza jarduerak garatzen parte hartu du:

- «Lengua y género. Para un uso no sexista de la lengua»
- «Diagnóstico y análisis de la realidad desde la perspectiva de género»
- «Estudios e investigaciones cuantitativas con enfoque de género»
- «Curso teórico-práctico sobre presupuestos de género»
- «Curso básico de formación sobre igualdad de mujeres y hombres»
- «Evaluación previa de impacto de género»

HAE Erekin batera egindako lan horretaz gain, generoari eta berdintasunari buruzko prestakuntza-ekintzak diseinatzeko aholkularitza tekniko ere eman du Emakundek, Eusko Jaurlaritzako sailek eta foru- eta toki-administrazioek hala eskatuta.

Bestalde, aholkuak eman zaizkie hala eskatu duten ikastetxeei eta hezkuntzaren alorreko beste eragile batzuei, bai eta enpresei, emakume elkarteei, profesional elkarteei eta bestelako erakundeei ere, emakumeen eta gizonen berdintasunerako prestakuntza diseinatzeari eta antolatzeari buruz eta gai horretan adituak diren pertsonak eta horrekin lotutako materialak bilatzeari buruz.

Barne-prestakuntza

Prestakuntza-ekintza hauek Emakundeko langileentzat dira, haiek antola ditzaten eta parte har dezaten. Bi helburu dituzte:

- Zenbait gaitan sakontzea eta irizpideak adostea, gai berriak izanik, oraindik nahikoa landu ez direlako.
- Berdintasun-politikak sustatzeko erreferentzia egokiak izan daitezkeen esperientziak ezagutzeko.



Aipatu diren barneko jarduerak bazter utzita, Emakundeko langileek interesgarriak diren prestakuntza ekimenetan parte hartzen du, bai HAEEn prestakuntza plan orokorraren barruan, bai Emakundek zuzenean antolatzen dituen jardueretan. Azken horiek aurrerago azalduko dira, kanpoko prestakuntzari eta gure erkidegoko, estatuko edo beste Autonomia Erkidego batzuetako erakundeek antolatutako prestakuntza jardueri buruzko puntuan.

Kanpoko prestakuntza

Beste instituzio eta erakunde batzuek antolatutako jardueretan hizlari gisa parte hartzea nahiz gure prestakuntza-jarduerak antolatzea hartzen ditu barnean.

Emakundeko langileek eskolak eman dituzte ikastaro hauetan:

- Nahiko programari buruzko hitzaldiak, zenbait erakundek antolatuak ([ikus 3.4.1 atala](#)).
- Emakumeen kontrako indarkerian esku hartzeko unibertsitate master ofiziala, Deustuko Unibertsitateak antolatua.
- Emakume eta Gizonen berdintasunaren gaineko Masterra, Euskal Herriko Unibertsitateak antolatua.
- «Curso básico sobre formación en igualdad de mujeres y hombres», EHAk antolatua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomiadunetako langileentzat.
- «Evaluación previa de impacto de género», EHAk antolatua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomiadunetako langileentzat.
- «Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak» on line ikastaroaren V. edizioa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak antolatua, Gizonduz ekimenaren barrua ([ikus 3.4.2 atala](#)).

Txostenak aurkeztu dira beste sentsibilizazio jarduera batzuetan:

- «Berdintasunerako gobernantza», Vitoria-Gasteizko Udalaren berdintasun planari buruzko lan-jardunaldiaren barruan.
- «Igualdad, corresponsabilidad e interés del y de la menor», ABIPASEk antolatutako familia erantzunkidetasunari buruzko jardunaldietan.
- «Gizonduz ekimena» Carlos III Unibertsitateak antolatutako Maskulinitateei buruzko Nazioarteko I. Biltzarrean.



Uda Ikastaroa

Mintegia.
Jazarpena



- «Políticas de igualdad dirigidas específicamente a hombres: experiencias y retos», Gizonduz ekimenaren Gizonei, berdintasunari eta maskulinitateei buruzko on-line ikastaroko saio presentzialaren barruan.
- «Esperientziak partekatzen koordinazio sozio-sanitarioaren koordinazioaren hobekuntzan», Osakidetzako Guruzetako Unibertsitate Ospitalean.
- «Lucha contra las violencias cometidas contra las mujeres e igualdad entre las mujeres y los hombres - Iparralde», Interes Publikoko Taldearen barruan Hendaian antolatutako jardunaldia.

Emakundek honako prestakuntza-jarduera hauek antolatu ditu zuzenean:

- «Lanean gertatzen diren sexu-jazarpenari eta jazarpen sexistari buruzko prestakuntza. Protokoloaren aplikazio praktikoa» Berdintasunaren arloko erakunde laguntzaileentzat. Emakundeko zuzendari Izaskun Landaida Larizgoitiak inauguratutako jardunaldi horretan gonbidatua Olga Fotinopoulou, UPV-EHUko Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko irakaslea izan zen.
- Berdintasunerako X. Gunea prestatzeko mintegia, izenburu honekin: «Berdintasuna: Gizarte osoari mesede egiten dion Giza eskubidea». 2013ko Gunean parte hartzeko interesa zuten erakundeei zuzendua. Emakundeko zuzendari Izaskun Landaida Larizgoitiak inauguratutako mintegi horretan honako hauek parte hartu zuten: Ianire Estébanez Castañok, emakumeenganako indarkeriaren prebentzioan eta gazteekin egindako esku-hartzean espezialista den psikologoak «Mujeres jóvenes 2.0. Dónde estamos, a dónde vamos» txostenarekin; M^a Socorro Alvarez Fernándezek, Emakundeko Programa eta Prestakuntza Arloko teknikariak, 2013ko Berdintasunerako Gunearen ezaugarriak azalduz; Fernando Oregi Altubek, Orebe Hezkuntza S.L.ko bazkide-zuzendariak, gunearen hamar urteen errebasoa eginez; Yolanda Barona Trapotek (Bagabiltza Elkarte) eta Arantza Campos Rubiok (Plazandreak), gunearen hamar urteei buruzko gogoetak azalduz; eta 2010ean Emakunderen Berdintasun Saria jasotako Teresa del Valle antropologoak, «Berdintasunaren erronkak eta onurak, eta berdintasun horrek aurrerapenari egindako ekarpenak» hitzaldiarekin.
- «Gaiaren egoera, ikuspegiak eta iritziak zaintza partekatuen gainean». Jardunaldia Emakundeko zuzendari Izaskun Landaida Larizgoitiak eta Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailburuorde Ana Agirre Zurutzak inauguratu zuten. Mahaian, alderdi juridikoak landuz, eta Emakundeko Arlo Juridikoaren arduradun Izaskun Fernández Otegi moderatzaile zela, honako hauek hartu zuten parte: Juan Ramón Calparsoro Damiánek, Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskal Nagusiak; M^a Ángeles Jaime De Pablok, Themis emakume juristen elkarteko Buruordeak; Juana Balmaseda Ripero, Bizkaiko Abokatuen Bazkuneko Abokatu, Legelarien Euskal Kontseiluko kide eta Genero Indarkeriaren arloko adituak. Bigarren mahai batean alderdi psikosozialak aztertu ziren. Mahai horretako parte-hartzaileak hauek izan ziren: Patricia Verdes Cearra abokatua; eta Raul Lizana Zamudio Psikologoa eta Bikoteko Genero Indarkeriaren arloan espezializatutako psikoterapeuta. Moderatzailea Elda Uribelarrea Barcina izan zen, Suspergintza Elkarteko (EDE Fundazioa) Emakume programen arloko arduraduna.
- «Genero analisisa osasun ikerketan», Emakumeen osasunerako nazioarteko ekintza egunean antolatuta. Emakundeko zuzendari Izaskun Landaida Larizgoitiak eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailburu Jon Darpón Sierrak inauguratu zuten. Aurkezle eta moderatzailea Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Osasun Ikerketa eta Berrikuntzako zuzendari María Aguirre Rueda izan zen. Jardunaldi hartan txosten hauek aurkeztu ziren: «Emakumeak eta gizonak osasunaren ikerketaren historian», Zaragozako Unibertsitateko Medikuntza Fakultateko Zientziaren Historiaren irakasle titular den Consuelo Miqueorena; «Genero ikuspegia osasun ikerketan: diskurtsotik ekintzetara», Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko ikerlari Elena

Aldasoro Unamunorena; eta «Estudio Longitudinal sobre el Perfil de Usuario-a del sistema de salud mental de la red pública vasca-Osakidetza. Análisis de las diferencias por sexos y posibles desigualdades por razón de género», Aurora Urbano Aljama eta Elisabete Arostegui Santamaría ikertzaileena. Jardunaldia amaitzeko, Asturiasko Osasun eta Zerbitzu Sanitarioen Saileko Carmen Mosquera Tenreirok «Ikerketa zientifikoa: zein, nola eta zertarako. Ohar batzuk.» hitzaldia eman zuen.

- «Miradas de género a la ciencia, la tecnología y la innovación», UPV/EHUko udako ikastaroen barruan egindakoa. Ikastaroaren helburuak hauek izan ziren: gaur egun bai mundu akademikoan bai zientzia, teknologia eta berrikuntzarekin loturiko lan-merkatuan dauden genero-etenak ezagutzera; neska eta gazteak karrera zientifiko eta teknologikoak aukeratzera motibatuzko esperientziak identifikatzea; prestakuntzazko eta lan zientifikoko giro pizgarria sortzeko formulak arakatzea; zientzia, teknologia eta berrikuntza birplanteatzearen gainean gogoeta egitea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin loturiko gatazka sozialei konponbideak bilatze aldera; eta emakumeak etorkizun hurbilean nahiz epe luzera alor zientifiko, teknologiko eta berrikuntzakoetan hobeto kokatzeko estrategiak aztertzea. Honako ikasgai hauek eman ziren: «Estrategias públicas para la incorporación de la perspectiva de género en la ciencia, la tecnología y la innovación», Inés Sánchez de Madariagarena; «Educación tecnocientífica desde la perspectiva de género. Cómo promover vocaciones en ciencia y tecnología superando los estereotipos de género en escolares», Teresa Nuño Angosena; «La fuerza del estereotipo en la agencia tecnocientífica», Lourdes Domínguez Carrascosorena; «Mujeres directivas en empresas innovadoras: proyecto Objetivo 15», Marian Ibarrondo Unamunzagarena; eta «Un cuarto propio conectado. Escenarios y propuestas para la igualdad en/desde la ciencia y la tecnología del siglo XXI», Remedios Zafra Alcarazena.
- «Berdintasuna, osasun psikosoziala eta bikaintasuna», Kalitate eta Bikaintasunaren XIX. Europar Astearen barruan antolatua (Euskalitek sustatutako astea). Jardunaldi hartan hauek aritu ziren hizlari: Izaskun Landaida Larizgoitia, Emakundeko zuzendaria; Amparo Ballester Pastor, Valentziako Unibertsitateko Lan Zuzenbide eta Gizarte Segurantzako katedraduna «Arrisku psikosozialen prebentzioa: arautegia eta enpresetan aplikazioa» txostenarekin; Maite amagoya
- Gómez Etxebarria, Laneko Arriskuen Prebentzioko Osalaneko teknikaria eta psikosozologiako espezialista, «Euskal Autonomia Erkidegoan arrisku psikosozialen prebentzioa. Egungo egoera» izenburuko txostenarekin. Gainera, jardunaldi horretan izendapen-plakak eman zitzaizkien 2013. urtean Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren Erakunde izendapena eskuratu duten hamalau erakundeei.

2.3.3. Azterlanak, ikerketak eta argitalpenak

Beharrezkoa da estatistikek eta azterlanek errealitateak benetan nolakoak diren adieraztea; hau da, genero-harremanak aztertzea, eta aztertzea, halaber, zer eragin duten harreman horiek emakumeen eta gizonen berdintasunik eza dakarten egoeretan. Hartara, berdintasun-ez horiek zuzentzeko politikak diseinatu eta gauzatu ahal izango dira, bai eta berdintasun-ezeko egoera eta modu berriak hauteman eta prebenitzekoak ere. Xede horrekin, Emakundek etengabe hainbat motatako azterlanak egiten ditu, arreta halaber hainbat sektoretan jarrita. Beste alde batetik ikerketa sustatzen du, eta egindako azterlanak hedatzeko jarduerak egiten ditu. Lan ildo horren barruan sartzen dira Erakundearen beraren argitalpenak, beken deialdia eta ikerkuntzan genero ikuspegia bultzatu eta txertatzeko lehiaketaren deialdia. Antzeko xedeak dauzka Erakundeko

Dokumentazio Zentroak. Zentro horrek aholkularitza eta baliabideak eskaintzen ditu azterlan eta ikerlanetarako, bai Emakundeko eta administrazio publiko guztietako langileentzat, bai ikerketan beste arlo batzuetan (unibertsitateetan edo bestelakoetan) aritzen direnei.

Azterlanak

Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko kopuruak - 2013

Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko kopuruak izeneko txostenari esker, emakume eta gizonen errealitatearen deskribapen eguneratua egin ahal da euskal gizarteko eremu sozial ekonomiko eta politiko batzuetan eta besteetan. Txosten hori eginez Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeari buruzko otsailaren 5eko 2/1988 Legearen 4. artikuluan eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean biltzen diren lege xedapenak betetzen dira, emakumeek eta gizonen gizartearen arlo batzuetan eta besteetan daukaten egoera eta posizionamenduari buruz (beharrizanak, egoerak, etab.) ikuspegi orokorra ematen duelako, bai uanean unekoa, bai ebolutiboa.

Azterlan honen metodologia bigarren mailako iturri kuantitatiboen azterketan oinarritzen da. Iturri horiek informazio estrapolagarria ematen dute emakumeek eta gizonen euskal gizartearen errealitate sozioekonomikoko esparru batzuetan eta besteetan duten egoerari buruz. Bereziki, estatistikak egiten espezializatuta dauden autonomia erkidegoko, estatuko eta Europako erakundeetara jo da; adibidez, euskal Estatistika Erakundera (EUSTAT) edo Estatistikako Institutu Nazionalera (INE), bai eta gobernuko sail batzuek eta besteek gai zehatz batzuei buruz egindako azterlanetara.

Zaintza partekatuari buruzko azterlana: gaiaren egoera, ikuspegiak eta jarrerak

Zaintza partekatuari buruzko miaketa-azterlana da. Zaintza partekatuari buruz gaiaren egoeraren berri eman nahi du, eta lanbide arlo batzuetan (juridikoa, soziala, psikologikoa) adituen ikusmoldea bildu ere, orokorrean gai horri eta Euskadin zein estatuan gaur egun eztabaidatzen ari diren arau-proiektuei dagokienez.

Horretarako, azterlan horrek datuak biltzen ditu ezkontza desagiteei, seme-alaben zaintzari eta etxeko erantzunkidetasunari buruz. Halaber, araudiak Estatuan seme-alaben eta gurasoen arteko harremanetan egindako ekarpen nagusiak azaltzen ditu; zaintza partekatuaren ereduari buruzko ikuspegi nagusiei buruzko hurbilketa biltzen du, EAEn indarrean dagoen araudiari eragin ahal dioten bi erreforma-proposamenen azalpena eta ibilbidea, eta horrez gain, zaintza partekatuari edo gurasoen erantzukizunari buruz

adierazpen publikoak egin dituzten gizarte-agenteen jarrera identifikatu da. Azkenik, lehenago komentatu den bezala, elkarrizketa sakonen bitartez, lanbide arlo batzuetako zein besteetako adituen ikusmoldea agerrarazten du.

Ikerlanak egiteko beken deialdiak

Ikerlanak egiteko beten deialdia 2012ko azaroan argitaratu zen, eta bertan adierazten zen beka bakoitza 23.333 eurokoa izango zela, 10 hileko lana egiteko. Hauek izan behar zuten ikerketen xedeak deitutako hiru beka-motatan:

- **1. beka-mota:** emakumeen ekarpenak eta aukerak berrikuntza-testuinguruetan, ekonomia-eredu berriak beharrezko dituen mundu aldakor honetan;
- **2. beka-mota:** egoerak eta desberdintasunak aztertzea askotariko bereizkeria jasateko arriskuan dauden emakumeen taldean, eta bereziki, baliabide sozial eta ekonomikoez baliatzerakoan, eta segurtasunean; eta
- **3. beka-mota:** emakumeen presentzia, eragina eta ordezkari-tza informazio eta komunikazio bideetan. Komunikabideetako edukien azterketa, emakumeen eta gizonen berdintasunaren ikuspegitik.

1. beka-motan, 20 eskaera aurkeztu ziren; **2. beka-motan**, 35; eta **3. beka-motan**, 28. Eskaera denak kontuan hartzen baditugu, emakumezkoek aurkeztu zituzten guztiak, lau izan ezik. Balorazioak eta elkarrizketak egin ondoren, hiru beka eman ziren, eta haien jarraipena egin zen, berariaz ezarritako bilera-egutegi baten bidez. Gaur egun, 8 pertsona ari dira prestatzen, eta honako gai hauek landuko dira esleitutako beken bidez:

1. BEKA-MOTA

EGILEA-KOORDINATZAILEA | Izenburua

Taldea
(Koordinatzailea)

Izaskun Artegui Alcaide
- **Ane Abarrategi**

Ekiten eta barneratzen: berrikuntza sozialetik abiatutako ekintzailetasun eredu berrien aukera eta oztupoak.

| Zenbatekoa : 23.333€

2. BEKA-MOTA

EGILEA-KOORDINATZAILEA | Izenburua

Taldea
(Koordinatzailea)

Inmaculada Mujika Flores
- **Josune Ortiz**
- **Amparo Villar**
- **Elene Olaortua**

La ruta de la exclusión: Discriminaciones múltiples en mujeres lesbianas (transexualidad, discapacidad, migración y edad) y repercusión en el acceso a los recursos socioculturales y económicos.

| Zenbatekoa : 23.333€

3. BEKA-MOTA

EGILEA-KOORDINATZAILEA | Izenburua

Taldea
(Koordinatzailea)

Pablo Vidal Vanaclocha
- **Teresa Nuño**

Estudio sobre la percepción del Sexismo en la publicidad entre alumnado adolescente de la Comunidad Autónoma del País Vasco (CAPV).

| Zenbatekoa : 23.333€

Ikerlanak argitaratzeko I. sariketa

Profesionalek eta gizarte-eragileek egindako ikerketen argitalpena eta zabalkundea sustatzeko eta laguntzeko, lehenengo lehiaketaren deialdia sortu da; izan ere, arlo horretan egin diren eta gizartearen interesekoak diren ikerlanak azpimarratu eta erakusgarri jarri nahi baitira. Modalitate honek lehen zauden laguntzen deialdia ordeztzen du. Deialdia irailean argitaratu zen, guztira 11 kandidaturak parte hartu dute, denak emakumeek aurkeztuak, eta deialdiaren ebazpena datorren ekitaldian emango da.

Argitalpenak

2013an, argitalpen hauek egin dira:

- «Txostena. Emakunde 2012»
- «Zifrak: Emakumeak eta gizonak Euskadin 2012»
- 32 zk.dun txostena: «Euskadiko emakume helduen ahalduntze-prozesuei buruzko txostena»
- 25 zk.dun gida: «Kontratu, diru-laguntza eta hitzarmen publikoetan berdintasunaren aldeko klausulak sartzea»
- 26 zk.dun gida: «Generoaren araberrako eraginaren txostenak egiteko gidaliburua»
- «Emakumeak kontratatzeke diru-laguntzen gida» (eguneraketa)
- «EAEn emakumeen ekintzaitza bultzatzeko laguntzen mapa»

Dokumentazio Zentroa

Dokumentazio zentroak ohiko kudeaketa eta mantentze-lanak egin ditu: funtsak eskuratzea, katalogazioa eta indexatzea, aldizkariaren harpidetzak kontrolatu eta horietatik artikulua husea, etab. Horiez gain, zentroak eskaintzen dituen zerbitzuetako erabiltzaileen eskaerei erantzun die ([3. eranskina ikusi](#). [Kontsultak eta Eskaerak](#). [Dokumentazio-zentroa](#)):

- Informazio-eskaerari erantzun zaie gutunez, faxez, posta elektronikoz, telefonoz edo aurrez aurre.



Dokumentazio-zentroa

Dokumentazio-zentroyen sarea



- Bibliografiaren alorreko aholkularitza eman zaie eta zerrenda bibliografikoak eta bideo-grafikoak egin zaizkie, neurria, Emakundeko langileei eta kanpoko erabiltzaileei.
- Gai jakin batzuei buruzko prentsako albisteak hautatu dira.
- Liburuak, bideoak eta abar mailegatu dira.

Urtean Dokumentazio Zentroak egin duen beste lan bat Emakundek bere historiaren 25 urteetan egindako kartelen katalogazioa izan da. Katalogatzeaz batera, 2008az geroztik digitalizatu gabe zeuden kartelak digitalizatu ziren. Kontrol eta digitalizazio lan horri esker 25. urteurrena ospatzeko postalak argitaratu ahal izan ziren, iazko berdintasunaren aldeko Emakunde Sariaren banaketarako.

Zentroaren jardura normala aztertzen badugu, adierazi behar da, Emakundeko langileei emandako arretari eta maileguei dagokienez, 205 kontsulta egon direla (guztira 88 liburu eta 36 ikus-entzunezko dokumentu, dvd, cd-rom mailegatu dira).

Kanpoko erabiltzaileei dagokienez, berriz, 218 kontsulta egon dira. Horien %18,5 (40 eskaera) beste autonomia-erkidego batzuek egina izan da, eta %2,5 (6 eskaera), atzerriko herrialdeek egina.

Azpitarratzekoa da, bi kasuetan –barneko kontsultak nahiz kanpokoak–, posta elektronikoa izan dela berriz ere gehien erabili den bidea (%73), eta gora egin dutela dokumentu elektronikoen eskaerek ere (Zentroan gordetako artikulua eta dokumentuenak edo sarean kontsultatutako baliabideenak). Sarean eskuragarri dauden beste material batzuei dagokienez, erabiltzaileei Interneten baliabideak edo dokumentuak bilatzen laguntzea edo horretarako jarraibideak ematea izaten da askotan Dokumentazio Zentroaren lana.

Aretoan edo aurrez aurre egindako kontsulten kopuruak (40 kontsulta) beherantz egiten jarraitzen du, aurreko urteetan bezala. Teknologia berriak gero eta sarriago erabiltzen direla adierazten du horrek, eta gauza bera esan dezakegu telefono bidezko kontsulten kopuruaren beherakadari buruz: 2013an 488 egin dira, eta aurreko urtean, aldiz, 567.

Liburutegiko datu-basean, 988 dokumentu-erreferentzia berri sartu dira 2013an (%28 monografiak dira, eta %45etik gora artikulua, dokumentuak...). Azpitarratu behar da, bestalde, dokumentu-erreferentzia berrien %27 euskarri digitalean (DVD) dagoela –266 bideo-grabazio–. Emakundek ekoitzitako ikus-entzunezko dokumentuetako asko digitalizatzeko edo formatuz aldatzeko prozesuarekin jarraitu da, bideo formatutik (VHS) formatu digitalera (DVD) igarotzeko.

Katalogatutako materialen erreferentziekin, kaleratu berrien buletinak prestatu dira hilero, eta barneko pertsoneri (Emakundeko teknikariak) nahiz kanpokoei (hala eskatu duten dokumentazio-zentroak) banatu zaizkie, posta elektronikoen bidez. Eusko Jaurlaritzako sailtako berdintasun-unitateek ere jasotzen dute buletin hori 2011. urtetik

aurrera. Iragan urtean ere buletina dokumentazio zentroko erabiltzaileen zerrenda bateko kideei banatzen hasi zitzairen, erabiltzaile horiek azken bost urte hauetan eskariren bat egin baitzuten.

Bestalde, Dokumentazio Zentroak «Emakunde» aldizkari digitala egiten parte hartu du, eta duela gutxi argitaratutako eta aldizkari «Liburuak» ataleko Dokumentazio Zentroak erositako liburuak edo dokumentuak proposatzen dira aldizkarian.

Estatuko beste dokumentazio-zentroekin elkarlanean aritzeari dagokionez, nabarmentzekoa da Red de Centros de Documentación y Bibliotecas de Mujeres sarearen jardura eta proiektuetan parte hartu duela Emakundek; adibidez, aldizkarien katalogo kolektiboaren proiektuan –oraindik aribidean dagoen asmo handiko proiektu bat da, eta kide diren zentro guztietako aldizkako argitalpenen izenburuak biltzen ditu, unean unekoak nahiz dagoeneko argitaratzen ez direnak–, eta emakume gaiarekin lotuta dauden indexatze-tresnak (Thesaurus) berrikusteko eta eguneratzeko lan kolektiboetan. Horrez gain, sare horrek urrian Granadan antolatu dituen topaketetan izan da Emakunde.

3. GIZARTE OSOA XEDE DUTEN JARDUERAK

Gizarte osoa da Emakunderen ekintzen hartzaile eta helburu handia. Txosten honen lehenengo zatian Emakundek erakunde publikoen eta erakunde horietan emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzeko egitura eta tresnen bitartez gizartea xede izanik bultzatu dituen ekintzak azaldu dira, eta bigarren zati honetan, herritarrak zuzenean xede dituzten ekintzak zehaztuko dira. Ekintza batzuen zein besteen helburua, gizartea emakumeen eta gizonen berdintasunean oinarritutako eredu baterantz eraldatzea da.

3.1. Emakumeen elkarteak eta berdintasunaren aldeko mugimenduak sendotu eta bultzatzea

Aholku Batzordearen esparruan garatutako prestakuntza-lanaz eta partaidetzaren bultzadaz gain ([ikus 2.1.3 atala](#)), Emakundek beste lantalde batzuei laguntzen die eta aholku teknikoak eskaintzen ditu, hala eskatzen duten elkartei, dela beren proiektuak landu eta ebaluatzeko, genero-ikuspegia txerta dezaten, dela sareak indartu ahal izateko dinamika eta ekintzei buruz, udalerrietan nahiz mankomunitateetan, lurraldeetan, Autonomia Erkidegoan eta Autonomia Erkidegoen artean. Hona hemen nabarmendu beharreko proiektu batzuk:

- EAEko emakume alargunen sareak.
- Lurralde historikoetako emakume-elkarteen mugimenduak eta komunikabideak.
- Landa eremuko emakumeen elkarteak.
- EAEko emakume ijitoen elkarteak.
- EAEko emakume ezinduak; hau da, erakunde mistoetako emakumeen arloko ordezkariak.
- Tokiko, eskualdeko eta lurralde historikoetako sareak finkatzen eta sortzen lagunduko duten proiektuak babestu dira, tokiko eta autonomia erkidegoko administrazioekin batera (landa eremuko emakumeak).
- Erakunde mistoetako emakumeen arloak.
- Ama bakarreko familien elkarteak

Sareak sortzeko bultzadari dagokionez, Emakundek emakume-elkarteen arteko topaketarako guneak bideratzen, sustatzen eta sendotzen jarraitu du. Arlo horretan gai hauek lantzen ari dira, besteak beste: prestakuntzako beharrianak eta elkarren antzeko prestakuntza-interesak dauzkaten hainbat elkarteren arteko prestakuntza-proiektuak egituratzeko estrategiak, parte-hartze aktiboagoa izateko asmoz, bai emakumeen elkarteen barruko dinamikari dagokionez, bai emakumeek sareetan parte hartzeari dagokionez (guztia ere, herri, lurralde historiko, autonomia erkidego, estatu zein nazioarte mailan).

Zehazki, aurten autonomia erkidegoaren eremuko sarea bat egiteari ekin zaio, landa eremuko emakumeen elkartegintza-mugimendua berrantolatzeko eta mugimendu horren presentzia areagotzeko Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Landa Eremuko Emakumeen Batzordean.

Azkenik esan behar da Emakunde estatuko eta nazioarteko emakume-elkarte eta elkarte mistoen eta jarduera antzeko esparruetan egiten duten beste elkarte batzuen arteko elkartrukea bideratzen saiatzen dela.

Laguntza ekonomikoa

Emakumeen elkarteak eta federazioak

Aholkularitza teknikoaz eta jarduerak antolatzekeo babesa emateaz gain, Emakundek elkarteen jarduera ekonomikoki babesten jarraitu du, diru-laguntzen urteroko deialdiaren bitartez. Irabazi-asmorik gabeko emakume-elkarte eta -federazioentzat da deialdia, bai eta emakumearen sustapena xede eta jarduera-eremu bakartzat duten fundazioentzat ere. Deialdiaren helburua hau da: emakumeen parte-hartzea eta prestakuntza bultzatzen dituzten elkarteak eta jarduerak sustatzea. Emakundek behar duten laguntza tekniko ematen die, bai proiektuak egiteko prozesuan, bai diru-laguntzak izapidetzeko prozesuan. Gainera, beste administrazio batzuen diru-laguntza deialdiei buruzko informazioa ere ematen die.

Erakunde onuradunak

139

Diru-laguntza duten
proiektu-kopurua

281

Emandako zenbatekoa
guztira

320.000€

Deialdian eskaera aurkeztu duten 139 elkarteetatik, 131k jaso dute diru-laguntza. Guztira, 281 proiektu lagundu dira diruz, eta 320.000 euro erabili dira horretarako. ([4. eranskina ikusi. Emakumeen Elkarteak eta Federazioak](#))

Beste elkarte eta erakunde batzuk

Esku-hartze sozial horren barruan, irabazi asmorik gabeko beste erakunde eta elkarte misto batzuek ere funtsezko ekarpena egiten dute indarkeriazko jokabideen inguruan sentsibilizatzen eta prebenitzen eta emakumeen aurkako indarkeriaren arloan arreta eta laguntza ematen.

Horregatik, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren alorrean sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintzak nahiz indarkeria horren prebentziorako oinarri gisa berdintasun-jarrerak sortzera bideratzen diren estrategiak abian jartzen dituzten erakundeei babes ekonomikoa ematen jarraitu du.

2013an, deialdiaren xedea indarkeria-portaerak prebenitzeko eta horiei buruzko sentsibilizazio-jarduerak eta emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta eta babesa eskaintzeko jarduerak bultzatzen eta sustatzen dituzten erakunde, elkarte eta fundazioak izan dira.

Deialdiaren ebazpenaren lehenengo artikuluan aurreikusitako xedeetarako baliabide ekonomikoen zenbatekoa berrehun eta hirurogei mila euro izan da. Erakunde eskatzaileak berrogei izan dira, eta guztira hamasei proiektu onetsi dira. ([5. eranskina ikusi. Diru-laguntza jasotzen duten bestelako Elkarteak eta Antolakundeak.](#))

Erakunde eskatzaileak

40

Diru-laguntza duten
proiektu-kopurua

16

Emandako zenbatekoa
guztira

260.000€

3.2. Enpresentzako aholkularitza eta laguntza

Berdintasunean aurrera egiteko, enpresa-kulturaren aldaketa bat gertatu behar da. Soilik ekoizpena kontuan hartzeari uztea eta pertsonak eta beren errealitate anitzak kontuan hartzea. Azterlan ugari agertzen dutenez, pertsonen gogobetetasun handiagoak produktibitatea areagotzen du. Pertsonen gogobetetasun handiagoa hainbat alderdirekin lotuta dago, besteak beste lanbide aintzatespenarekin, lanbide prestakuntza eta sustapenerako aukerekin, lan bitzitza eta bitzitza familiarra eta pertsonala uztartzeko aukerekin, etab... Emakundek arlo horretan egiten duen lanaren ardatzak enpresetan sentsibilizazio lana eta berdintasun planak landu eta abian jartzeko aholkularitza eta laguntza lana dira, baita enpresek ildo horretan egiten duten lana jendaurrean aintzat hartzea ere.

3.2.1. Berdintasun-planak: Aholkularitza

Emakundek aholkularitza eman die enpresei eta beste erakunde batzuei berdintasunerako legediari buruz eta eskuragarri dauden baliabide material, ekonomiko eta pertsonalei buruz, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko planak, programak eta jarduerak egin ditzaten beren lan-esparruetan.

Berdintasunerako Legea garatuz joan denez eta enpresetan berdintasuna sustatzeko kontzientzia gero eta handiagoa denez, ikusi ahal izan da informazio- eta laguntza-eskaerek gora egin dutela, eta ez diagnostikoak eta berdintasun-planak egiteko soilik, baita plan horiek abian jartzeko ere.

3.2.2. Enpresa eta erakunde pribatuentzako diru-laguntzak

Berritu egin da enpresa eta erakunde pribatuek emakumeen eta gizonen berdintasunerako diagnostikoak eta planak diseinatzeko laguntza kontratatu ahal izateko diru-laguntzen deialdia, eta jarraian adierazten diren enpresak eta erakundeak diruz lagundu dira:

ERAKUNDE ONURADUNAK	Diru-laguntzaren zenbatekoa (eurotan)	ERAKUNDE ONURADUNAK	Diru-laguntzaren zenbatekoa (eurotan)
EXCAVACIONES Y OBRAS DE DIEGO SL	1.735	ARRATS ELKARTEA	4.250
GAIA	7.920	TRANSBISA GESTION DE INFRAESTRUCTURAS SA	2.690
CONSTRUCCIONES Y PROMOCIONES BALZOLA, S.A.	5.365	AUTOBUSES LA GUIPUZCOANA SL	10.000
BIZKAIKO BIRGIZARTERATZE INSTITUTUA	6.640	DYA BIDE LAGUNTZA ELKARTEA	7.927
EUSKARRI KOOP.E.	4.986		
IPACE PSICOLOGÍA APLICADA, S.L.	3.165	GUZTIRA	96.000
ASOCIACION ASKABIDE LIBERACION	6.640		
BIDEGINTZA ELKARTEA	6.640		
LAGUN ARTEAN HARRERA ZENTROA	6.640		
ALKAR BIZIZ	6.400		
LURGOIEN, S.A.	3.285		
CONSTRUCCIONES MURIAS S.A.	6.269		

Horien artean daude lau eraikuntza enpresa, zerbitzuen arloko hamahiru erakunde (horien artean garraio enpresak) eta irabazteko asmorik gabeko elkarte eta fundazioak. Lurralde historikoari dagokionez, bost Gipuzkoan daude, eta zortzi, Bizkaian. Proiektuak zuzenean gizonei eragingo die batez ere, eraikuntza enpresen eraginez, enpresa horietan batik bat gizonak daudelako kontratatuta. Hala ere, elkarte eta fundazioetan emakume asko daude enplegatuta; elkarte eta fundazio horien zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsona gehienak ere emakumeak dira.

Era askotako erakundeei lagundu zaiela ikusita, pentsatzekoa da era askotako inguruneetara iritsiko dela berdintasun-plan horiek martxan jartzeak gizartean izango duen eragina, eta horrek areagotu egingo duela etorkizunean eragin hori, bai eskaintako zerbitzuen kalitateari eta zerbitzu horietan lan egiten duten pertsonen lan-baldintzei dagokienez, bai gizonen eta emakumeen artean baliabide sozialak eta ekonomikoak eskuratzeko dauden desorekak murrizteari dagokionez.

3.2.3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzak Erakundeak

2013. urtean, 13 entitateri eman zaie, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariaren ebazpen bidez, Emakumeen eta Gizonezkoen Aukera Berdintasunerako Lankidetzak Erakunde izendapena. Beraz, abenduaren 30ean 80 lankidetzak erakunde zeuden guztira EAEn. Azaroaren 8ko 424/1994 Dekretuak sortu zuen figura hori, gizartean eta lan-munduan emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde sor daitezkeen ekimenak bultzatzeko eta entitate horiek guztiek berdintasunaren alorrean egiten duten lana aitortzeko.

- CONSTRUCCIONES MARIEZCURRENA, S.L.
- FUNDACIÓN BIZITZEN
- KONFIA SERVICIOS DE CONCILIACIÓN
- ASOCIACIÓN LANBERRI
- TRANSPORTES PESA, S.A.
- PESA BIZKAIA, S.A.
- FUNDACIÓN FONDO FORMACIÓN
- SATSE- SINDICATO DE ENFERMERÍA DE EUSKADI
- VIRTUAL WARE, 2007 S.A
- IHOBE, S.A.
- DEUTSCHE SHULE SAN ALBERTO MAGNO S.COOP.
- ARCELOR MITTAL GIPUZKOA, S.L.U. - PLANTA DE ZUMARRAGA
- CRUZ ROJA GIPUZKOA (CENTRO SOCIO SANITARIO DE CRUZ ROJA EN SAN SEBASTIÁN Y RESIDENCIA ASISTIDA DE CRUZ ROJA EN IRÚN)

Erakunde laguntzaileak.
Berdintasuneko ziurtagiriak.



Izendapen hori lortzean, Emakundeko Zuzendaritzak ziurtagiri bat eta plaka bat ematen dizkie erakundeei, lankidetzak-erakundeak direla egiaztatzeko. 2013an, ekitaldiak egin dira, enpresa hauei ziurtagiria eta plaka emateko:

- TXINDORRA KONTZULTORIA S.L.
- EMUN KOOPERATIBA ELKARTEA
- KONFIA SERVICIOS DE CONCILIACIÓN, S.L.
- FUNDACION BIZITZEN-BIZITZEN FUNDAZIOA
- CONSTRUCCIONES MARIEZCURRENA, S.L.
- ASOCIACIÓN LANBERRI, EMPLEO JOVEN PARA LA PROMOCIÓN SOCIAL DE BILBAO
- TRANSPORTES PESA, S.A.
- FUNDACION FONDO FORMACION
- SATSE - SINDICATO DE ENFERMERÍA
- VIRTUALWARE 2007, S.A.
- DEUTSCHE SCHULE SAN ALBERTO MAGNO
- ARCELOR MITTAL GIPUZKOA, S.L.U.-PLANTA DE ZUMARRAGA
- IHOBE, S.A
- PESA BIZKAIA, S.A.

424/1994 Dekretuak ezartzen duenari jarraiki, erakunde laguntzaileen jarraipena egin da; dekretu horrek 2012. urteari dagokion jarraipen-txostena eta 2013. urteko lan-plana ematea eskatzen du. Horiek guztiek eskakizun guztiak bete dituzte; hortaz, aintzatespena jasotzen jarraitu ahal dute. Vital Kutxak eta BBK-k Kutxarekin bat egin eta KUTXA Bank eratu dute; horregatik aintzatespena galdu dute. Arrazoi berberetatik aintzatespena galdu dute Euskadiko Kutxak eta Ipar Kutxak, Laboral Kutxa eratzeko bat egin dutelako. BEAZ S.A.k era galdu egin du, BAIrekin bat egiteagatik. Bestalde, aurreko deialdietan Emakunderen diru-laguntza jaso eta justifikatu duten erakundeen jarraipena egin da, eta eskatu zaie lanean jarraitu eta Lankidetzak Erakunde bihurtzeko konpromisoa betetzeko.

Azkenik esan behar da «Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzen laguntzeko Erakundearen» figura juridikoa sortu zuen azaroaren 8ko 424/1994 Dekretua aldatzeko dekretua tramitatu dela, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko 41. artikularekin bat egin eta hura gara dezan. Aldaketa horren bidez, arau hura eman ondoren metatu den kudeaketa-lanaren ondorioz balioetsi diren zuzenketak sartu nahi dira egungo araubidean.

Landa Eremuko Emakumeak



Emakume Ijitoen Batzordea



3.2.4. Aholkularitza-entitateen homologazioa eta jarraipena

Aholkularitza-entitateei informazioa eta aholkuak eman zaizkie, enpresa eta erakundeei gizon eta emakumeen berdintasunaren alorrean laguntza teknikoa emateko homologazioa jasotzeko deialdiari buruz.

Eskaera egin duten lau enpresak baloratu dira, eta horietatik hiru homologatu dira, enpresa eta erakundeei gizon eta emakumeen berdintasunaren alorrean laguntza teknikoa emateko, 105/2004 Dekretuaren babesean -abenduaren 28ko 348/2010 Dekretuak aldatu egin du Dekretu hori-. Honako aholkularitza-entitate hauek lortu dute homologazioa:

- Bidertu Gestoría Social
- Consultoría ERABERRIA
- Oreka Sarea, S.L.

Azkenik, homologatutako aholkularitza-entitateen jarraipena egin da, homologazioak eskatzen dituen baldintzak betetzen jarraitzen dutela egiaztatzeko. Balorazioa egin ondoren, homologazioa kendu zaio aholkularitza-entitate bati: Euskadi Empleo S.L.ri, desegin delako.

2013ko abenduaren 31an emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan homologatutako 23 aholkularitza-entitate zauden.

3.2.5. Enpresei laguntzeko beste tresna batzuk

Prestakuntzako material eta jarduerak lantzea enpresei laguntzeko beste bide bat da. 2013an sexu jazarpenaren arloko prestakuntza jarduera bat egin da, eta honako agiri hauek egin eta argitaratu dira ([ikus argitalpenen 2.3.3 atala](#)):

- **Emakumeen Enplegua Sustatzeko Kontratu-motei eta Laguntzei buruzko Gidaliburua eguneratu da.** Tresna horren helburua da aholkularitza ematea enpresei eta erakundeei, emakumeen enplegua sustatzeko indarrean diren kontratu-modalitateen, hobarien eta laguntzen berri izan dezaten.

- **EAEn Emakumeen Ekintzailtza Bultzatzeko Laguntzen Mapa egitea.** Enpresa-jarduera bat abiarazi nahi duten emakumeentzat da, eta, dauden laguntzei buruzko informazioa emanez, ekintzaileei laguntza eta aholku ematen dieten erakunde publiko eta pribatuentzat.

- **Kirolean emakumeen kontrako sexu-jazarpenari eta -abusuari aurrea hartzeko eta aurre egiteko gidaliburua eta protokoloa egitea.** Horren helburua kirol-erakundeen berezitasunari erantzutea da, emakume kirolariek kirolean sexu-jazarpenik eta -abusurik jasan ez dezaten. Agiriak bi zati ditu: lehenengoa, sentsibilizatzeko, eta bigarrena, protokoloa bera, federazio-esparruan jarduteko prozedura deskribatzen duena.


3.3. Herritarrentzako arreta zuzeneko jarduerak

Emakundek Herritarren babeserako arloa dauka. Horren bitartez esparru pribatua sexuagatiko diskriminazioari buruzko kekek eta salaketak hartzen eta tramitatzen ditu eta horiei buruzko txostenak egiten ditu. Halaber, 2013a trantsizio epea izan da, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren zereginak transferitzeko eta zuzendaritza horren arreta-eginkizunak Eusko Jaurlaritzako sail batzuei eta besteei esleitzeko. Hori dela-eta, Emakundek urte horretan zuzeneko zerbitzuak eman ditu, adibidez emakumeen aurkako indarkeriaren biktime diren emakumeentzako laguntza ekonomikoak, genero indarkeriaren biktime diren emakumeei laguntzeko zerbitzua eta Telefono bidezko 24 orduko arreta zerbitzua (SATEVI).

3.3.1. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimeentzako arreta

Ordainketa bakarrek laguntza ekonomikoak

282 laguntza-eskaera tramitatu dira, eta haietatik 260 ebatzi dira. Gainerako 22ak 2014an ebatzete geratu dira. Honako taula honetan, eman diren laguntzak lurraldeen arabera nola banatzen diren erakusten da:



Laguntza jaso duten 162 emakumeen artean, 89ren jaioterria Espainiar Estatu da. Horrek %55 egiten du. Gainerako %45, 73 emakume, beste herri batzuetakoak dira.

98 eskari ukatzeko eta atzera egiteko arrazoiak hauek izan dira:

- Laguntza eskatzeko ezinbesteko eskakizunen bat ez betetzea: 72 kasu.
- Beste laguntza batekin, adibidez Gizarteratzeko Errenta Aktiboarekin, bateraezina izatea: 19 kasu.
- Eskatutako agiriak ez konpontzea (atzera egitea): 7 kasu.

Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako arreta

- Aurrez aurreko arreta: Emakumeen 900 bisita.
- Telefono bidez: Emakumeen 3.375 dei, jasotakoak edo egindakoak.
- Posta elektronikoz: 125 mezu, jasotakoak edo bidalitakoak.

Etxeko indarkeria jasan duten emakumeei laguntzeko telefono bidezko 24 orduko zerbitzua

2013an, 1.730 lagunek egindako 3.514 dei artatu ziren. . Dei horietatik, 1.248 kasutan arreta biktimak berak jaso du, 66 kasutan kasuarekin zerikusia duten profesionalak, 397tan biktimaren inguruko pertsonak, eta 19tan beste profesional batzuek.

Zerbitzu horrek espetxe komunikazioak ere tramitatzen ditu, eta 2013an 1149 kasu kudeatu ditu 457 espedienteri buruz, Espediente horietatik 59 biktima bat baino gehiago zeukaten erasotzaileei buruzkoak ziren; hain zuzen ere, biktima horiek babes-agindua zuten genero indarkeriako delituengatik.

Horrez gain, Ertzaintzaren gogobetetasunari buruzko inkestak egiten ditu. Jasotako puntuazioei buruzko inkestak dira, eta kexen, iradokizunen edo kezken inguruko gorabeherak identifikatzen dira zerbitzua hobetze aldera. Jasotako datuetatik abiatuta, txosten batzuk egiten dira hilero, lau hilean behin eta urtean behin. 2013. urtean, guztira 1.557 inkesta kudeatu dira.

Halaber, zerbitzu horrek 2013an «EZ ISILDU / NO TE CALLES www.euskadi.net/notecalles» webgunea eguneratu eta mantendu du. Webgune horren helburu nagusiak gazteen artean tratatu txarren kasuei buruz sentsibilizazioa sortzea eta kasu kopurua murriztea da. Horretarako emakume gazteei informazioa, portaerako jarraibideak eta informazioa eskaintzen dizkie genero indarkeriaren aurrean dauden baliabideei buruz. Webgunearen xedeak biktima diren emakume gazteak dira, bai eta maitasun zeregin eta eredu gisa indarkeria psikologikoa (kontrolaren itxuraz) legitimatzen duten emakumeak ere.

EZ ISILDU gunean kontsultarako guneak, edukiak eta tresnak daude errealitate horretan esku hartzen duten beste publiko batzuentzat: genero indarkeria egiten duten gizon gazteentzat, orokorrean biztanle gazteentzat, gogoeta eginarazteko eta prebentzioko beste estrategia batzuen artean parekoen artean sentsibilizaziorako eta kontzientziatorako mezuak hedatzeko tresna aktibo gisa; genero indarkeria edozein modutan jasaten ari diren emakume gazteen inguruko pertsonak; eta gazteen artean genero indarkeriaren prebentzioan, sentsibilizazioan, esku-hartzea eta ikerketan lan egiten duten profesionalentzat, elkarteentzat eta beste hainbat motatako erakundeentzat.

Gai horiek hainbat lekutan aztertu eta jarraitu ahal izan dira. Blogean: <http://ezisildu.blog.euskadi.net>, Facebooken: <http://facebook.com/#!ezisildu>, Tuentin: <http://tuenti.com/ezisildu> eta Twitterren: <http://twitter.com/#!ezisildu>

Azkenik esan behar da 2013an Emakundek biktimentzako zerbitzuaren barruan dagoen emakumeen aurkako indarkeriaren biktimentzako arreta zerbitzua eta sexu-esplotaziorako salerosketaren biktima diren emakumeei arreta osoa emateko programa mantendu dituela.

3.3.2. Berdintasunaren eta sexuagatiko bereizkeriari ezaren printzipioa defendatzea sektore pribatuan

Emakundek herritarrei zuzeneko arreta zerbitzua eman die, bai enpresa pribatuei bai partikularrei, esparru pribatuan sexuagatiko diskriminazioari buruz arreta eta informazioa emanaz.

Gainera, gizarte eta lan arloko sektore behartsuetako emakumeak artatu dira, adibidez familiaren etxeko zerbitzuan lan egiten duten emakumeak, hain zuzen ere zeharo feminizatuta dagoen sektore batekoak.

Gainera, sektore pribatuan sexuaren zioz gertatu diren diskriminazioengatik Emakunden aurkeztutako salaketak eta kexak ere tramitatu dira. Horiek horrela:

- Telefono bidezko nahiz aurrez aurreko 300dik gora kontsulta artatu dira. Unean bertan eman da erantzuna, edo ebazteko eskumena duten organo eta zerbitzuetara bideratu dira.
- Herritarrek erakunde honi 69 eskaera egin dizkiote, tratu-berdintasunari eta sexuagatiko diskriminazio ezari buruzko informazio eta aholkularitza espezializatu jasotzeko; idatziz erantzun ditugu.
- Sexuaren ziozko bereizkeriaren ustezko egoerei buruz aurkeztutako 21 salaketa eta 17 kexa erregistratu dira. Horietatik 18, gaiarengatik edo eskumenen eremu geografikoarengatik, Arartekoari eta/edo Emakumearen Institutuari bideratu zaizkio, eta 8 enpresei nahiz partikularrei zuzendutako gomendioak eginez ebatzi dira.

Gainera, 3 txosten egin dira beste hainbat kasuri buruz, sexuaren ziozko bereizkeria kasuak argitzeko: 1.- Enpresa-akordio batean detektatutako sexuaren ziozko bereizkeria; 2.- emakume haurdun bat kaleratzeko saiakera; eta azkenik, Osakidetzan dagoen Jarduketa Protokoloaren berri eman zen. Protokolo hori EAEko ospitale guztietan aplikatzen da enbrioi-hondakinen erabilerari buruz.

Kontsultak mota askotarikoak dira, dela erakundeari berari buruzko informazioa eskatzeko, dela gai larriagoi buruz, adibidez indarkeria kasuetan. Gehienetan agertzen diren gaiak hauek dira: haurdun egoteagatik kontratua ez berritzea edo kaleratzea, sexu jazarpeneko egoerak, etxeko enpleguak kontratatzea, uztarketarako edo ekintzailatzarako mota askotariko laguntzak, zaintza partekatua, indarkeria egoerak, etab. Horregatik ez dira banan-banan azaltzen. Salaketa eta kexei dagokienez, aztertu dira kasu guztiak azaltzen dira ([6. erainskina ikusi. Salaketa eta Kexei](#)).

3.4. Gizarte sentsibilizazioa

Berdintasuna benetan lortu ahal izateko, emakume eta gizonen portaerako jarraibide soziokulturalak dibertsifikatu eta aberastu behar dira eta gure izaeran sustrai sakonak dauzkaten balio batzuk aldatu behar dira. Horien ordezkari genero-zereginen atribuzio soziala etxean zein lan arloan murriztuko duten beste batzuk ezarri behar dira, zaintza-lana beharizan sozial eta erantzukizun konpartitu gisa ikusaraziko duten balioak, pertsona guztien berdintasunarekiko konpromisoa sendotuko dutenak, sexu biei balio eta prestigio bera emango dietenak, eta bereziki gizonei dagokienez, gizonen eredu tradizionala auzitan jarri eta berdintasunarekin koherenteak diren jarrera eta portaerak garatuko dituztenak.

Ezinbestekoa da gizartea orokorrean nahiz gizartean eragina duten profesionalak, gizarte-eragileak eta beste erakunde batzuk sentsibilizatzea, berdintasuneko eredu bat xede izanik aldatzeko beharizanari buruz. Horregatik, Emakunderen eginkizunetako bat gizartea sentsibilizatzekeo jarduerak egitea da. Jarduera horien artean nabarmentzekoak dira jardunaldiak, kanpainak, aldizkari digitala eta web ingurunea, Berdintasunerako Emakunde Saria eta eztabaida-foroetan nahiz hedabideetan etengabe duen parte-hartzea.

Emakume eta gizonen berdintasunerako sentsibilizazioa funtsezkoa da desberdintasunaren ondoriozko arazo, desoreka eta bidegabekeria guztiei aurre egiteko, eta horien artean larrienari, emakumeen aurkako indarkeriari, alegia.

3.4.1. NAHIKO programa

Nahiko programa hezkidetzaren programa bat da. Lehen Hezkuntzan erabiltzen da, eta berdintasuna, errespetua eta indarkeriarik eza sustatzea du helburu. 2013an programa Lehen Hezkuntzako edozein ziklotan ezartzeko interesa duten ikastetxeei laguntza eta gaitasuna emateko deialdia egin da. Deialdi hori Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarekin batera egin da hezkidetzaren eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida-Planaren barruan.

2013ko azken hiruhilekoan jarduerak hauek egin dira:

- Ikastetxeak hautatu dira (24, 10etik gora irakasleekin eta 2100dik gora ikasleekin) eta ikastetxeetan Programa abian jartzearen inguruko konpromisoari eta ondorioari buruzko aholkua eman zaie.
- Ikastetxeen eskura jarri dira Programa garatzeko beharrezkoak diren ikasle eta familientzako koadernoak eta irakasleentzako gida didaktikoak, bai eta Programa abian jartzeko beharrezkoak diren jolasak eta gainerako materialak ere.
- Parte hartzen duten ikastetxeen koordinazioa, aholkularitza eta jarraipena.

Halaber, Nahiko! Ikasketak Gidaliburua egin da (Nahiko! Programaren esperientzia pilotuen laburpena, ondorioak eta ikasketak), helburu hauekin:

- Nahiko hezkidetzaren programarekin egindako esperientzia pilotuak laburbilduta azaltzea, bai programaren sorrerari bai Lehen Hezkuntzako eskola-ziklo bakoitzeko esperientziari buruz;
- Datuak eta esperientzia pilotuetan ikasleekin, irakasleekin eta familien artean egindako behaketak aztertzea;
- Egindako ebaluazioa eta ateratako ondorioak sintetizatzea
- Sortutako materialak laburbilduta aurkeztea.

3.4.2. Gizonduz ekimena

Gizonduz ekimen aitzindaria da. Ekimenaren helburua da gizonek parte-hartze handiagoa izatea emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko ekimenetan, eta haien artean masa kritiko bat sortzea, adierazitako helburua lortzeko aurrerapen handiagoak egin daitezten.

Helburu hauek lortu nahi dira ekimenaren bidez:

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan eta emakumeek jasaten duten indarkeriaren aurka sentsibilizatutako eta inplikaturako gizonen kopurua handitzea.
- Gizon gehiago prestatzea emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan.
- Gizonek etxeko lanetan eta pertsonen zaintzan duten erantzunkidetasuna areagotzea.

2013. urtean, honako jarduerak egin dira, Gizonduz ekimenaren barruan:

- **Berdintasunaren aldeko gizonen arloan espezializatutako webgunea** (www.euskadi.net/gizonduz) administratzea. Webgune horrek ekimenari buruzko informazio zabala hainbat euskarritan eskaintzen du, hala nola elkarrizketekin osatutako atalak, dokumentazio gunea, bibliografia, bideoak, web gune interesgarrietarako loturak, etab. Gainera, bloga ere dago eskura, herritarrei zabalduriko gunea, berdintasunarekin, gizonekin eta maskulinitasunarekin zerikusia duten berriei buruzko iritziak, hausnarketak eta iruzkinak adierazi ahal izateko.
- **Sare sozialetan parte hartzea.** Gizonduzek Facebooken duen orria eta YouTuben eta Vimeon dituen profilak administratu dira, eta aldi behin eguneratu egin dira. Facebooken 2013an 5.000 «atsegin dut»-en muga gainditu zen eta 80 argitalpen txertatu ziren. Argitalpen bakoitzak batez beste 445 bisita izan zituen.
- **Sentsibilizazio- eta prestakuntza-programa.** 2013ko apirilean jarri zen abian programa honen bosgarren edizioa. Zenbait ikastaroz osatuta dago; batzuk aurrez aurrekoak dira, eta beste batzuk, Internet bidezkoak. Ikastaroak doakoak dira, era askotako eskaintza zabala dute, eta egokitzeko modukoak eta malguak dira. Bi ikastaromota daude: programatutakoak, hau da, ikastaroaren alderdi nagusiak (edukiak, ezaugarriak, egutegia, tokia, etab.) aurrez zehaztuta dituztenak; eta programatu gabek edo neurria egindakoak, eskaintzaren arabera antolatzen direnak bai iraupenari eta edukiei dagokienez, bai eta tokiari eta hartzaile diren pertsonen dagokienez ere. Nahiz eta emakumeek ere har dezaketen parte ikastaro horietan, gizonentzat dira bereziki; hain zuzen ere, bakarka edo taldean, interes pertsonalak bultzatuta eta/edo ikuspegi profesionalekin, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna zer den eta horren alde nola lan egin daitekeen sakonago ezagutu nahi duten gizonentzat. Alde horretatik, gizonen balio eta jarrerekin, berdintasunarekin eta maskulinitateekin lotutako gaiak lantzen dira, eta zenbait gai aztertzen dira, hala nola osasuna, zainketa, aitasuna, sexualitatea, bide-segurtasuna, emakumeen aurkako indarkeria, toxikomanien prebentzioa, kriminalitatearen prebentzioa... 2013an, antolatu diren ikastaro batzuetan eta besteetan 682 gizonen eta 538 emakumeen hartu dute parte.

- **«Gazteak Bertintasunean 2.0» proiektua diseinatzea.** EJIE, SA sozietate publikoarekin lankidetzan, proiektu hau diseinatzen eta garatzen jarraitu da. Proiektuaren xedea da nerabe eta gazteen kontzientziak eta inplikazioa bultzatzea, eta, bereziki, gizonezkoena, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontra egin dezaten. Horretarako, teknologia berrietan oinarritutako hezkuntza-tresna berritzaileak baliatuko dira. Proiektua 2014. urtean ezartzea aurreikusten da, eta hiru plataforma izango ditu:
 - Informazio-web edo «erakustoki» bat, proiektuaren garapenari eta faseei nahiz proiektuan lanean ari diren erakundeei buruzko informazioa emango duena.
 - On line abentura grafiko bat (bideo-joko bat). Abentura horretan, erabiltzaileei zenbait egoera adieraziko zaizkie, eta proba batzuk egin eta ebatzi beharko dituzte; hau da, egoera sexistak, homofoboak, indarkeriazkoak eta halakoak izango dituzte, eta zenbait aukeraren artean erabaki bat hartu beharko dute.
 - Komunitate birtuala, nerabeen arteko komunikazioa sendotuta partaidetzazko guneak sortuko dituena.
- Bertintasunari buruzko unibertsitate-master eta -graduondokoen eta HAEEn ikastaroen publizitatea egitea, bai eta Bertintasunerako Gunearena ere. Gizonak pres-takuntza- eta sentsibilizazio-jarduera horietan parte hartzera bultzatzeko, Gizonduz ekimenak haien publizitatea egin du bere aldizkari elektronikoaren eta webgunearen bidez.
- Mintegiak eta hitzaldiak. Emakundek honako hauek antolatu ditu Gizonduzen barruan:
 - «Gizonei bideratutako berdintasun politikak: erronkak eta esperientziak» biltzarra Emakunden, azaroaren 15ean. Irekiaren bitartez eman zen.
- **Sentsibilizatzeko beste jarduerak batzuk.** Gizonduz ekimena ezagutzera emateko, Emakunde zenbait komunikabidetan agertu da, eta beste erakunde batzuek antolatutako sentsibilizazio-jarduera ugaritan parte hartu du. Adibidez, hauek:
 - Familia erantzunkidetasunari buruzko jardunaldiak, ABIPASEk antolatuak, urriaren 4an eta 5ean.
 - AHIGE-k Sant Boi de Llobregaten azaroaren 7tik 9ra bitartean antolatutako Bertintasunaren aldeko gizonen topaketa.
 - Gasteizko udalak azaroaren 19tik 21era antolatutako «Ahalduntze kolektiboa emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean: Ahalduntzea helmuga eta lan-metodologia gisa. Gogoetak eta esperientziak» izenburuko jardunaldia.
 - Lazo Zuriaren Kanpainari buruzko online jardunaldia, Genero Bertintasunaren Europako Institutuak azaroaren 29an antolatua.
 - Maskulinitatei buruzko Nazioarteko I. Biltzarra, Carlos III Unibertsitateak antolatua, abenduaren 9an eta 10ean.
 - Feminismoak eta Gizonak topaketa, Gizonsarea-Bertintasunaren Aldeko Euskal Herriko Gizonen Elkarguneak antolatua, abenduaren 12an.

3.4.3. Kanpainak

Martxoaren 8ko kanpaina

Emakundek martxoaren 8rako, Emakumeen nazioarteko egunerako diseinatutako kanpainak berdintasunaren balio soziala azpimarratu zuen. Horrez gain, nabarmendu egin zuen berdintasun faltak kostuak dakartzala pertsoneri, gizarteari eta ekonomiari dagokienez eta berdintasuna positiboa dela bai pertsonen banakako garapenerako bai gizartearen aurrerabiderako. Honako hau izan da kanpainaren leloa:


**= + Berdin gehiago da
Berdintasuna: giza eskubide bat, gizarte osoarentzako onura bat**

Kanpainak mezu hau botu zuen: berdintasunak gizon eta emakumeek beren gaitasun guztiak garatzea eta erabakiak genero-estereotipoetan oinarritutako mugarik gabe hartzea ahalbidetzen du. Berdintasunak errespetua, ezaguera, ongizatea eta demokrazia areagotzen ditu. Berdintasunak pertsona guztien autonomia garatzen laguntzen du, esparru pertsonalean nahiz sozialean; balio solidarioak sendotzen ditu, eta ez hierarkikoak, betiere lankidetzan, elkarrekiko errespetuan eta autoritate pertsonalean oinarritutako harremanak finkatuz; zaintzaren baterako erantzukizuna sustatzen du; eta berdintasunean eta aniztasunarekiko errespetuan oinarritutako harreman afektiboen garapenean laguntzen du. Horrek guztiak gizarte bidezkoago, sendoago eta garatuago bat eraikitzen laguntzen du, demokrazian aurrera egiteaz gain. Azken finean, emakumezko eta gizonezkoen arteko berdintasunean aurrera egiteak eragiten dituen banako nahiz gizartearentzako onurak helarazi nahi dira.

Kanpaina hori 2013ko martxoaren 5etik 12ra bitartean egin zen, eta hainbat lekutan ikusi ahal izan zen: autobus, tren eta Metro gurekuetako markesinetan, prentsa idatzian, hedabide digitaletan, aldizkarietan eta kartelen bidez: 5.000 kartel banatu ziren erakundeetan, ikastetxeetan, liburutegietan eta mota askotako entitateetan.

Azaroaren 25eko kanpaina. Emakumeen aurkako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna

2006az geroztik, Berdintasunaren kontzientziazio-kanpaina bat egiten du urtero, Emakumeen aurkako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Egunean. 2013an, Eudelek eskatuta, Emakundek programa kudeatzeko ardura hartu du. Hortaz, Eudelekin batera



parte hartu du hiru Foru Aldundien laguntza eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren, UPV/EHuren eta ETBren lankidetzan izan duen programa horren diseinu, garapen eta ebaluazioan.

Kanpaina gazteentzat izaten da, eta, haren barruan, Beldur Barik programa antolatzen da. Programa horrek zenbait ekimen hartzen ditu barnean. Alde batetik, Beldur Barik lehiaketa antolatu da, emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako jarrerak eta proposamenak sustatzeko; lehiaketak erantzun ona izan du, 152 lan aurkeztu baitira. Laugarren edizio honetan ere, lehiaketaren helburua izan da sustatzea era guztietako arte-adierazpenak egin daitezkeen, erakusteko nola egiten dioten aurre neska-mutilek emakumeek gaur egun bizi duten berdintasunik ezaren egoerari, errespetuan, berdintasunean, askatasunean, autonomian, erantzunkidetasunean eta indarkeria sexistari uko egitean oinarritutako jarreraren eta portaeren bidez. Joan den urtean bezala, laugarren edizio honen helburuetako bat izan da ikastetxeen parte-hartzea sustatzea. Beste alde batetik, Udal batzuek zein besteek tokiko ekimenak garatzeko pizgarria ematearen alde egin da. Horregatik, tokiko prozesu horiek diseinatu eta garatzeko aholkularitza eta laguntza indartu dira. Guztira 38 udalerrik eta 4 mankomunitatek hartu dute parte programan, proposatutako lan-maila batzuetan eta besteetan.

Lehiaketan lan hauek izan ziren irabazleak: lehenengo kategorian (12-17 urte), «Paso de Cebra» bideoa, Maugako ikus-entzunezkoak sortzeko Zinhezba lantegiko neska-mutilek egina; bigarren kategorian (18-26 urte), «Dzingora» lana, Gatikako Barezi Caballerok egina; herri-sariaren kategorian, «Ez utzi itzaltzen» lana, Debako Nere Oriak eta Ane Arrizabalagak egina. Aipamen bereziak jaso dituzten lanak, berriz, honako hauek izan dira: Lehenengo kategorian: «Ametsak», Bilboko Gallego Gorria Ikastetxeak egindakoa eta «Kanpora etiketak», Abadiñoko Jone Astorkiak, Jone Azpirozek, Laia Gerrikagoitiak eta Elene Quintanak egindakoa; eta bigarren kategorian: «La rabia», Lorena Condek egindakoa, eta «Izan nahi duzu?», Elorrioko Txoko Feministako neskek egindakoa.

Beste alde batetik, azaroaren 30ean Beldur Barik Topaketa egin zen Basauriko Marienea gunean. Topaketa horretan prestakuntza tailerrak egin ziren (autodefentsa feminista; sexualitatea, norberaren gorputzaren eta plazeraren ezagutza; feminismoa mutilentzat eta umorea eta jabekuntza: clown jolasaren hastapena) eta Mónica Arank sortutako «Hogeigarren hamarkadako amazonak, amazonas de los años 20» argazki-erakusketa ikusgai egon zen. Gainera, Basauriko Banda Feminista eta Las Kapritxosas aritu ziren. Sari banaketa Ibaiganen egin zen, Hortzmuga Antzerki Konpainiak zuzendu zuen, eta amaieran Virginia Imaz aritu zen clownclusiones izeneko emanaldiarekin.

Berdintasunerako foroaren karpa Laudion



Beldur Barik programa zenbait ingurunetan eta erakundetan aurkeztu da, hala nola berritzeguneetan, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren bidez.

3.4.4. Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Gunea 2013

Aurten, 2013ko Berdintasunerako Gunea jarri du martxan Emakundek urriaren 1etik 31ra bitartean, erakunde publikoek eta pribatuek emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotutako sentsibilizazio- eta prestakuntza-jarduerak antolatu ahal izateko eremu berean, eta, hartara, Euskadin alor horretan egiten den lana ikusarazteko.

2013an, Emakunderen sorreraren 25. urteurrenean, Gune horren hamargarren edizioa egin zen. Arrazoi horregatik edizio berezia izan da, alde batetik Gunean azken 10 urteetan parte hartu duten erakunde guztiek egindako lana eta aurrerapenak aintzatesteko; eta bestetik, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortze aldera lan egiten jarraitzeko konpromisoa berritzeko.

Emakundek martxoaren 8a ospatzeko kanpainaren leloa jaso du 2013ko Guneak: =+ago da. Lelo horren barruan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko helburuak dituzten ekitaldi guztiak antolatu daitezke. Berdintasunerako X. Gunea gune zabal eta anitza izatea zen asmoa, berdintasunak duen gizarte balioari buruz hausnartzeko gunea, zehazki alderdi hauetan:


- 1) Zer emandiguberdintasunakgure lanarlobakoitzean?
- 2) Zer ematen ditu oraintxe bertan?
- 3) Zer daukagu egiteko oraindik?

Berdintasunerako foroaren karpa Laudion



90 entitatek hartu dute parte: 27 elkarteek, 16 enpresak, 5 fundaziok, Eusko Jaurlaritzako sailtako 13 zuzendaritzak, 6 unibertsitatek edo ikastetxek, 2 alderdi politikok, 5 enpresaburu-elkartek, foru-aldundi batek, 5 profesionalen elkargo, 9 Udalek eta sindikatu batek. Guztira, 83 jarduera egin dira 31 herritan, eta 4.000 bat pertsonak hartu dute parte. Nabarmenezkoa da edizio honetan parte hartu duten pertsonen kopuruak gora egin duela, parte hartu duten erakundeen eta egin diren jardueren proportzio berean.

90 entitatek hartu dute parte



3.4.5. Emakunde aldizkariaren argitalpena

Formatu digitalaren aldeko apustua sendotu du Emakunde aldizkariak 2013. urtean. Apustu hori egin da, teknologia berriek ematen dituzten abantailez baliatzeko; hau da, ingurumena zaintzeko eta kostu ekonomikoak murrizteko. Gune berri bat diseinatu da helburu hauekin:

- Aldizkariaren edukien aurkezpena eta orokorrean aldizkariaren sareko presentzia planteatzea, eta erakargarriago eta eskuragarriago bihurtzea.
- Zenbaki isolatuaren kontzeptua gainditzea eta eduki batzuen eta besteen arteko nabigazioa interaktiboago bihurtzea.
- Nabigazio erosoago eta intuitiboagoa planteatzea, eta horretarako, erabiltzailearen lana ahalik eta gehien erraztea. Diseinu bisualagoa, edukien mendean egongo dena, irakurketa errazagoa izan dadin. Artikulu eta elkarrizketei aberastasun bisual handiagoa eranstea, estuari formatua emanez eta gaur egungo monotonia hautsiz.
- Orri nagusiak azken zenbakari ez ezik edukirik nabarmenenei erantzuna eman diezaiela planteatzea.
- Sare sozialekiko harremana sustatzea, gomendioak egiteko balio duten aplikazioekin bitartez.
- Ahal den neurrian edukietarako sarbideak gai-multzotan taldekatuta definitzea.

Aldizkariaren helburuetako bat gure gizarteko esparru batzuetan eta besteetan adituak diren emakumeak, emakumeen elkarteak eta Emakundek berdintasunaren alde egindako lana ikusaraztea da, eta horrez gain berdintasunaren arloko jardunbide onak ezagutaraztea ere bai.

3.4.6. Hedabideetan agertzea

Herritarrak Emakunderen helburuez sentsibilizatzeko eta egindako jarduerak ezagutarazteko, Emakundeko Zuzendaritzak sentsibilizazio- eta informazio-lan handia egiten du komunikabideetan. Horretarako, iritzi-artikuluak eta prentsa-oharrak bidali ditu, eta prentsaurrekoak, elkarrizketak eta bestelako ekintza batzuk antolatu ditu. 2013an, guztira, hedabideei 50 prentsa-ohar bidali zaizkie eta hedabideei prentsaurrekoetarako deialdiak 14 aldiz bidali zaizkie. Halaber, Emakundeko zuzendariak hedabideetan hainbat iritzi-artikulu argitaratu du:

- Emakunde, aliantza historia bat Izaskun Landaida Larizgoitia (2013-05-14)
- Informatu eta prestatu. Izaskun Landaida Larizgoitia. (2013-6-6)
- Jaietan, ez zaitez pasatu, ezta pasatzen utzi Izaskun Landaida Larizgoitia (2013-7-14)
- Balio aldaketa, gizarte berri bat sortzeko giltza. Izaskun Landaida Larizgoitia (2013-12-11)

Horrez gain, hedabideen kontsulta eta eskariei erantzun zaie, adibidez elkarrizketak egiteko, datuak eskuratzeko, etab. Kontsulta gehienetan zera eskatu da: elkarrizketak Emakundeko zuzendariarekin, elkarrizketak egitea merezi duten adituei buruzko informazioa, emakumeen aurkako indarkeriarekin edo emakumeen lan egoerarekin lotutako datuei buruzko informazioa, hainbat esparrutan (osasuna, lana, politika, etab.) berdintasunarekin lotutako hainbat gairi egindako azterlanei buruzko informazioa... Emakume eta gizonen berdintasunarekin zerikusia duen edozein gai aztertzeari ekiterakoan, hedabideek dauzkaten erreferentzien artean Emakunde da lehenengoetarikoa eta nagusietarikoa bat.

3.4.7. Berdintasunaren Emakunde Saria

Irailaren 12ko 166/2006 Dekretuak sortu eta arautzen du Berdintasunerako Emakunde Saria. Hala ere, 1990. urtean Emakunde sariarekin hasitako lanaren emaitza da; sari horiek urtero eman izan dira, 2005. urtera arte.

2006. urtean, 16 urtez Emakunde Sariarekin lanean aritu ondoren, sari horiek birformulatu egin ziren, eta Berdintasunerako Emakunde Saria sortu zen. Sari horren helburua da azpimarratzea eta jendaurrean aitortzea emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean egindako lanagatik nabarmendu diren pertsona fisiko eta juridikoen, publiko nahiz pribatuen, jarduera. Saria ematen zaie, emakumeen lana aitortzen laguntzeko edo emakumeen ahalduak hobetzeko zenbait ekintza, lan edo proiektu egin

dituztelako, edota beren jarduerak nabarmen lagundu duelako emakumeen zeregina balioesten eta duin bihurtzen edo EAEko emakumeen eta gizonen eskubide- eta aukera-berdintasuna sustatzen.

2013an, 2012ko Emakunde Sariaren irabazleari, Bilboko Laguntza Psikosozialeko Moduluei saria entregatu zitzaion. Sari banaketaren ekitaldia Emakunderen 25. urteurrenaren ospakizunen barruan egin zen, 2013ko maiatzaren 14an, Lehendakaritzaren egoitzan.

